

Denis Diderot

Hau ez da ipuina

euskaratzailea: Iñaki Iñurrieta

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Iñaki Iñurrieta.

Euskarazko edizioa: Literatura unibertsala, 1995

Jatorrizkoaren data: 1772

Denis Diderot euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=189>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1622>

HITZAURREA

Balzacen hitzak dira: «Pentsatu bai baina esaten ez dena berehala ulertze hori, esan gabe ulertzeko jeinu hori —frantses hizkuntzaren erdia—, ezin dira beste inon aurkitu (Parisen baino)». Sentsazio horixe izan dut nik behin eta berriz, Dideroten ipuin hauek itzultzean: jatorrizko testuak hitzez hitz itzulitakoa baino askoz gehiago ezkututzen, iradokitzen zuela; hainbat esalditan bigarren edo agian hirugarren zentzu bat zetzala; berariazko anbiguotasuna zutela pertsonaien hitzek, egoerek, erreakzioek. Maiz ageri samarrean den ironia baino askoz harantzago zihoala testuaren esanahia. Baina urrun nago ni frantses hizkuntza modu «balzactar» horretan ezagutzetik, eta aitor dezadan hasiera honetatik, itzulpen hau behin-behinekoa dela. (Itzulpen guztiak dira behin-behineko, egia esan, baina hau modu «erantsi» batean apika).

Ipuin hauek arraro samarrak gertatuko zaizkio gaurko irakurleari. Geza samarrak, agian. Batetik, bertan ageri diren pertsonaia eta gerta-

kizun asko historikoak dira; benetako pertsonak eta gertatutako jazoerak dakartza Diderotek bere istorioetara, eta, beraz, berrehun urte geroagoko irakurlea aski galduta dagoke orduko gorabeherak zehatz-mehatz ez ezagutzera.

Bestetik —ezin bestela izan—, literatur gusua izugarri aldatu da XVIII. mendetik hona. Gure sentsibilitatea XIX. mendean nagusituriko konbentzio errealistaren ildotik hezia da, eta ipuin hauek, bistan da, ez daude joko-arau horien esanera.

Baina beharbada horrexegatik dira hain moderno. Hamaika saio egin dira gure mende honetan konbentzio errealista hori hausteko. Diderot, berriz, moldeok bere garaian finkatu gabe zeudenez, jolasean bezala ari da horiekin, gaur egungo hainbat artista bezala. Eta puntu horretantxe egiten dute topo hark eta hauek.

«Hau ez da ipuina»n kontatzeaz beraz egiten den gogoetak —tituluari darion ironia barne— harako «idazketaren abentura» hura gogorazten digu. Bestalde, «Bourbonneko bi lagunak»en kontalari anitzen kontaketek sorrarazten duten perspektibismoa bera, hain hemezortzigarren

mendekoa izanik, oso garaikidea egiten zaigu, bere erlatibismoarekin, irudimenari uzten dion jokoagatik. Fikzioan irakurlearen ordezkari-edo litzatekeen pertsonaia sartzeara bera ere, guztiz modernoa da. Azkenik, ezin aipatu gabe utzi ironiaren presentzia orokor eta etengabea.

Denis Diderot (1713-1784) Entziklopedian egindako lanagatik da batez ere ezaguna. 1746an d'Alembertekin batera zuzendaritzaz arduratu zenetik eta hogeitabat urtean, lan hartara eman zen buru-belarri: hainbat eta hainbat artikulu idatzi, beste hainbat enkargatu, zuzendu, inprimaketez arduratu... Horrez gainera bere obra propioa osatuz joan zen. Batez ere pentsalari edo filosofotzat jo izan duten arren, genero guztiak jorratu zituen: saiakera (*Essai sur le mérite et la vertu, Pensées philosophiques, De l'interprétation de la nature...*), nobela (*Les bijoux indiscrets, La Religieuse, Le Neveu de Rameau, Jacques le Fataliste...*), antzerkia (*Le Fils naturel, Le Père de famille...*), eta hainbat eta hainbat gutun, iruzkin, opuskulo, kritika... tartean, ipuin hauek direla. Lehen idazle profesionaletako bat, zentzu modernoan, lanbide

horrek hamaika estutasun ekarri zizkiolarik: dirurik eza, zentsurarekiko borroka, kartzela...

Iñaki Iñurrieta

HAU EZ DA IPUINA

Ipuin bat kontatzen denean, aditzen duen norbaiti kontatzen zaio; eta denik laburrena izanda ere, gutxitan gertatzen da entzuleak kontalaria zenbait aldiz ez etetea. Horra zergatik sartu dudan irakurriko den kontakizunean, ipuina ez den honetan —edo ipuin txar bat den honetan, zalantzarik baduzue—, irakurlearena—edo egingo duen pertsonaia bat; eta besterik gabe hasiko naiz.

* * *

Eta zer ondorio ateratzen duzu hortik?

— Halako gai interesgarri batek aldean jarri behar ligukeela burua; hiriko biltoki guztietako solasgaia izan behar lukeela hilabetez; han zaporea galdu arte iraulia eta desiraulia izan; mila eztabaidatarako gaia hornitu, hogeitazkitarako gutxienez, eta bertsozko ehunka piezatarako, alde edo kontra; eta egilearen finezia guztia, jakintza guztia, izpiritu guztia eta guzti, haren

obrak ez baitu inolako zalapartarik sorrarazi, kaxkarra dela, oso kaxkarra gero.

— Baina iruditzen zait hala ere arrats atsegin samarra zor diogula, eta irakurraldi honek ekarri duela...

— Zera! maiztutako istorio-andana bat, alde batekoek eta bestekoek elkarri jaurtika, eta betidanik oso gauza jakina den zerbait besterik ez ziotena, alegia gizona eta emakumea bi abere oso gaizto direla.

— Hala ere, izurriak zu ere hartu zaitu, eta zeure laina ordaindu duzu beste edonork bezala.

— Izan ere, gogo onez nahiz txarrez, jarritako bidetik ibili beharra dago; jendartera sartzean, norberaren aurpegiera ere ikusten direnen arabera konpondu ohi da; atsegin azaldu ohi da bat, triste egonik; triste, atsegin izateko gogoia izanda; ez zaio arrotz izan nahi ezeri; literatoak politikaz jarduten du; politikariak metafisikaz; metafisikoak moralaz; moralistak finantzez; finantzariak, letra ederrez edo geometriaz; aditu edo isildu ordez, bakoitzak ez dakienaz jarduten du, eta denak aspertzen dira banitate ergelaren edo adeitasunaren kariaz.

— Umoreko zaude.

— Beti bezala.

— Eta uste dut egoki dela nire istorioa une hobe baterako gordetzea.

— Alegia, nik noiz alde egingo zain zaudela.

— Ez da hori.

— Edo beldur zarela ez ote dudan zuregana, buruz buru, jende artean ezezagun batengana nukeena baino barkamen gutxiago izango.

— Ez da hori.

— Atsegin bekizu, bada, zer den esatea.

— Nire istorioak ez duela frogatzen nekarazi zaituzten beste horiek baino gehiagorik.

— Tira! Kontatu, hala ere.

— Ez, ez; nahikoa duzu.

— Ba al dakizu amorrarazteko diren modu guztietarik, zurea zaidala gogaikarriena?

— Eta zein da, bada, nirea?

— Zerbait egiteko irrikaz egon eta hori egin dezazun erregu diezazutela. Ondo da, lagun, atsegin har dezazun erregutzen dizut, arren eta otoi egiten dizut.

— Atsegin har dezadan!

— Has zaitez, Jainkoarren, has zaitez!

— Laburra izaten saiatuko naiz.

— Hori ez da hain txarra izango.

Hemen, pixka bat maleziaz, eztula egin nuen, tu egin nuen, musuzapia poliki-poliki zabaldu, zintz egin, toxa ireki, tabako pixka bat hartu; eta hala aditu nion besteari, bere artean zioela: «Istoria laburra bada, hasi aurrekoak behintzat luzeak...». Mirabe bati deitzeko gogoak eman zidan, edozer mandaturen aitzakiaz; baina ez nuen halakorik egin, eta esan nion:

— Aitortu beharra dago badirela ondo gizon onak, eta ondo emakume gaiztoak.

— Egunero ikusten dena hori ere, eta batzuetan etxetik irten gabe. Eta?

— Eta? Ezagutu nuen alsaziar eder bat, baina ederra agureak erakartzeko eta gazte-jendeari motxean lotuta eusteko.

— Nik ere ezagutu nuen; Mme. Reymer zuen izena.

— Egia da. Nancytik etorri berri bat, Tanié zeritzana, itsuki maitemindu zen harekin. Pobrea zen, ume galdu horietako bat, seme-alaba ugari-dun gurasoen gogorrak etxetik botata mundura abiatzen direnak zertara iritsiko diren jakin gabe,

senak esaten baitie ihes egiten dioten hori baino zori okerragorik ez dutela izango. Tanié, Reymer anderearekin maiteminduta, kemena ematen zion eta ekintza guztiak edertzen zizkion grina batek suhartuta, higuin handirik gabe ematen zen penagarri eta nardagarrienetara, neska lagunaren miseria arintzeko. Egunez, portura joaten zen lanera; arratsez, eskean ibiltzen zen kaleetan.

— Ederra oso, baina ezin askorik iraun horrek.

— Tanié ere, beharraren kontra borrokatzeaz nekatuta, edota emakume xarmanta pobrezian edukitzeaz, hau atzetik zituen gizon aberatsek estutzen baitzuten Tanié gizajo hura bota zezan...

— Halaxe egingo zuen hamabost egun, hila-bete beranduago.

— Eta beren aberastasunak onar zitzan, haren ondotik alde egitea erabaki zuen, eta fortuna tentatzera urrunera joatea. Eskatu du, lortu du erregearen itsasontzi baterako pasaia. Iritsi zaio abiatzeko unea. Joan zaio Reymer andereari agur esatera. «Ene laguna, esaten dio, ez

nezake zure samurtasunaz gehiago abusatu. Erabakita nago, banoa». «Bazoaz!». «Bai...». «Eta nora zoaz bada?». «Irletara. Beste zori bat merezi duzu zuk, eta ez nezake halakorik atzeraraz...»

— Hura bai ona, Tanié!

«Eta zer gertatuko zait niri?»

— Bestea bai traidorea!

«Atsegin eman nahi dizun jendez inguratuta zaude. Agindu dizkidazunak itzultzen dizkizut; emandako hitza itzultzen dizut. Ikus ezazu atzetik dituzun horien artean nor duzun gogokoen; onar ezazu, neronek eskatzen dizut, arren...». «Ene, Tanié, zerorrek proposatzen didazu...»

— Ez daukazu Reymer anderearen plantak azaldu beharrik. Ikusten dut, badakit...

«Alde egitean, eskatzen dizudan grazia bakarra, betiko bananduko gaituen loturarik ez eretzea, horra. Zin egidazu, nire lagun eder horrek. Zeinahi dela bizilekutzat har dezadan lur-bazterra, ondo zorigaitzekoa izan beharko dut urtebete iraganda zureganako samurtasunaren froga ziurrik ematen ez badizut. Ez ezazula negar egin...»

— Emakume guztiek egiten dute negar nahi dutenean.

«... Eta ez kontra egin bihotz-zimikoek iradoki didaten asmoari, beraiek ekarriko bainaute luze gabe». Eta horra Tanié Santo Domingora abiatu.

— Eta une egokian abiatu ere, bai Reymer anderearentzat eta bai berarentzat.

— Zer dakizu zuk horretaz?

— Badakit, jakin daitekeen bezain ongi, Taniék aukera bat egitea aholkatu zionerako, egina zuela.

— Tira!

— Jarraitu zeure kontakizunari.

— Taniék jeinua eta gaitasun handia zituen aferetarako. Luze gabe egin zen ezagun. Cap-eko kontseilu subiranoan sartu zen. Bere argitasunak eta zuzentasunak nabarmenarazi zuten han. Ez zuen gutiziatzen fortuna handirik; zintzo eta bizkor lortu, besterik ez zuen nahi. Urtero, zati bat bidaltzen zion Reymer andereari. Azkenean itzuli zen, handik... bederatzi-hamar urtera; ez, ez dut uste luzeago faltako zenik... aurkeztu lagunari zorrotxo bat, bere bertute eta nekeen

etekina gordetzen zuena... eta, hara Taniéren zoriona, orduantxe suertatu emakumea Taniéren ondorengoetan azkenagandik banandu berri.

— Azkenagandik?

— Bai.

— Beraz, izan zirela banaka batzuk?

— Bai noski.

— Segi, segi.

— Baina beharbada ez dizut esango nik baino hobeto ez dakizunik.

— Zer axola dio horrek, segi hala ere.

— Mme. Reymer eta Taniék egoitza eder samarra zuten hartua Sainte-Marguerite kalean, nire aldamenean. Oso estimatua nuen Tanié, eta sarri izaten nintzen haren etxean, aberatsa ez bazen ere, guztiz eroso jarrita baitzeukan.

— Seguru-seguru esan diezazuket, Reymer horrekin kontuak ateratzen ibili gabe, hamabost mila libera baino gehiago zituela errentan Tanié itzuli aurretik.

— Bere fortuna ezkututzen ziola, alegia?

— Bai.

— Eta zergatik?

— Zekena eta harraparia zelako.

— Harraparia, tira; baina zekena! gorte-andere bat zekena! ... Baziren bospasei urte bi maitaleok ulerpiderik onenean bizi zirela.

— Bataren finezia ezin handiagoari eta bestearen konfiantza mugagabeari esker.

— O! Egia da susmoaren itzal-arrastorik ere ez zela sartzen Taniérena bezain arima aratzean. Behin edo behin erreparatu dudan gauza bakarra, Reymer andereak laster ahaztu zuela bere lehen eskasia; arrandiaren eta aberastasunaren maitasunak tormentupean zeukatela; apalduta zegoela hain emakume ederra izanda oinez ibili beharragatik.

— Ez zela zalgurdian ibiltzen, alegia?

— Eta gaizpidearen distirak ezkututzen ziola itsuskeria. Barre egiten duzu?... Maurepasko jaunak iparraldean merkataritza-etxea jartzeko proiektua osatu zuenean izan zen hau. Ekinbide horren arrakastak gizon ekile eta azkarra eskatzen zuen. Taniérengan ezarri zuen begia, hainbat afera garrantzitsuren ardura emana baitzion Capeko egonaldian, eta hura beti enplegatu ministroaren atseginez. Tanié jota geratu zen adei-agiri harengatik. Hain zegoen pozik, hain

zoriontsu lagun ederraren ondoan! Maite zuen; maite zuten, edo hala uste zuen berak behintzat.

— Ondo esana dago hori.

— Zer gehi ziezaiokeen urreak haren zorionari? Ezer ez. Hala ere, ministroak joateko eta joateko. Erabaki beharra zegoen, Reymer andereari dena azaldu beharra zegoen. Hain zuzen, ikuskizun triste honen amaian iritsi nintzen haren etxera. Tanié gizajoa malkotan urtzen zegoen. «Zer duzu, lagun?» esan nion. Eta berak, zotinka: «Emakume hau!». Reymer anderea lasai ari zen tapizgintzako lan batean. Tanié zutitu bat-batean eta irten egin zen. Bakarrik geratu nintzen lagunarekin, eta hark ez zidan utzi Taniéren zentzugabekeria zeritzona jakin gabe. Bere egoraren urria gehiegitu zidan; izpiritu zoli batek askonahiaren sofismak estaltzeko erabiltzen duen maltzurkeria guztia ezarri zion bere deitorari. «Zer da? Bi edo hiru urtetarako alde egitea, gehienez ere». «Nahikoa denbora maite duzun eta bere burua adina maite zaituen gizon batentzat». «Maite nauela? Maite banindu, zalantzarik egingo ote luke niri atsegin emateko?». «Baina andere, ez al zoaz berarekin?». «Ni!

Inola ere ez!; eta hain da bere gisako, hori proposatzeaz ohartu ere ez da egin. Zalantzak al ditu nitaz?». «Ez dut uste». «Hamabi urtez bera- ren zain egon naizenez gero, egon daiteke beste bi edo hirutan nire leialtasunaz fidaturik. Jauna, hau bizitzan behin bakarrik suertatu ohi diren abagune bitxi horietako bat baina; eta ez dut nahi egunen batean damutzea eta beharbada niri leporatzea aukera galdu izana». «Taniék ez du ezeren damurik izango, zuri atsegín emateko zoriona dueino». «Oso ondo dago hori; baina zaude ziur hura oso pozik egongo dela aberastu- ta ni zahartutakoan. Emakumeen errua etorkizu- naz inoiz ez pentsatzea da; nirea ez, ordea...». Ministroa Parisen zegoen. Sainte-Marguerite kaletik hotelera pauso bat besterik ez dago. Tanié hara joan eta hitz emana zen. Begiak lehor baina arima kuzkur itzuli zen. «Andere», diotso, «Maurepasko jauna ikusi dut; hitza eman diot. Banoa, bai, banoa, atsegín emango zaizu». «Ai! nire laguna!...». Reymer andereak alde bat uzten du bere lana, Tanié rengana oldartzen da, beso artean hartzen dio lepoa, laztanez eta hitz goxoz betetzen du. «Ai! Oraingoan bai ikusten

dudala maite nauzula». Taniék hotz erantzuten dio: «Aberatsa izan, horixe nahi duzu zuk».

— Bazen, ordea, alproja hura, merezi baino hamar aldiz gehiago...

«Eta izango zara. Urrea maite baituzu, noan zuretzako urre bila». Asteartea zen; ministroak ostirala zuen jarria abiarako, atzerapenik gabe. Agur esatera joan nintzaion bere buruarekin borrokan ari zen unean, Reymer eder, doilor eta ankerraren besoetatik askatzen saiatzen zenean. Ideien nahasmendu bat, etsipen bat, herio bat zen hura, halakorik ez dut nik berriro ikusi. Hura ez zen lantua; garrasi luze bat zen. Artean Reymer anderea ohean zegoen. Gizonak haren esku bat zeukan hartuta. Esan eta esan ari zen etengabe: «Emakume ankerra! Ankerra halakoa! Zer behar duzu, daukazun modu ona eta ni bezalako lagun bat, maitale bat besterik? Fortuna bila joan natzaio Amerikako bazter kiskalgarrietara; orain, berriz, haren bila iparraldeko izotzen artera joan nadin nahi du. Lagun, sumatzen dut emakume hau erotuta dagoela; sumatzen dut burugabea naizela; baina hiltzea ez zait berau tristatzea bezain gogorra. Alde egin

diezazudan nahi duzu; aide egingo dizut, bada». Belauniko zegoen ohe ertzean, ahoa bestearen eskuari emanda eta aurpegia estalkien artean ezkutaturik, hala non xuxurla ematzean, are tristeago eta erdiragarriago bihurtzen baitzen. Gelako atea ireki egin zen; burua jaso zuen berehala; ikusi zuen zaltzaina, zaldiak gurdiari lotuta zeudela iragartzera etorria. Garrasi egin zuen, eta atzera aurpegia estalkien artean ezkutatu. Isilune baten ondoren, jaiki egin zen; esaten dio lagunari: «Besarka nazazu, andere; besarka nazazu berriz ere, ez bainauzu berriro ikusiko». Susmo hura egia-egia zen. Abiatu zen. Iritsi zen Petersburgora eta, handik hiru egunera, sukar batek jo eta laugarrenean hil zen.

— Banekien hori guztia.

— Taniéren ondorengoetako bat ote zaitut?

— Zeuk esan duzu; eta eder gorrotagarri horrexekin hondatu ditut neure aferak.

— Tanié gizajoa!

— Bada munduan inozoa dela esango dizunik.

— Ez naiz haren alde aterako; baina bihotz-bihotzetik nahi nuke halakoei beren patu gaizto-

ak Reymer anderea bezalako emakume eder
ustel bat jar liezaien bidean.

— Ankerra zara zeure mendekuetan.

— Eta gainera, baldin emakume gaiztorik eta
gizon ononik bada, badira emakume on-onak eta
gizon gaizto-gaiztoak ere; eta erantsiko dudana
ez da aurrekoa baino ipuinago.

— Sinetsita nago.

— M. d'Hérouville...

— Oraindik bizi den hori? Erregeren armada-
ko teniente nagusia? Lolotte izeneko izaki xar-
mantarekin ezkondu zena?

— Berbera.

— Adeitsua gizona, zientzien zalea.

— Eta jakintsuena. Denbora luzean jardun du
gerraren historia orokor batekin, mende eta
nazio guztietan zeharrekoa.

— Makala proiektua.

— Hura burutzeko, gazte-jendeaz inguratu
zen, merezimendu nabarmenekoaz, hala nola M.
de Montucla, *Matematikaren Historia*-ren egi-
leaz.

— Arraioa! Halako buruargi asko al zen han?

— Baina Gardeil zeritzanari, kontatuko dizudan menturako heroiori, ez zion alde handirik kentzen. Greziar hizkuntzaren aldeko amorru komunak eman zion hasiera Gardeil eta bion arteko loturari, eta denborak, elkarri eman genizkion aholkuek, bizimodu erretiraturako zaletasuna, eta batez ere elkar ikusteko erraztasunak adiskidetasun handi samarrera eramango gintuzten.

— Orduan zu l'Estrapaden bizi zinen.

— Hura Sainte-Hyacinthe kaiean, eta laguna, Mlle. de La Chaux, Saint-Michel plazan. Bere izeenez aipatzen dut, zorigaitzeko gajo hura zendua delako, bere biziak ohorea besterik ez dakarkiolako izpiritu ongi hezietan, eta naturak haren ari-maren sentikortasunaren puskatxo batez hornitu edo zigortu dituenen mirespena, damua eta malakoak.

— Baina ahotsa eten egiten zaizu, eta uste dut negarrez zaudela.

— Oraindik ere haren begi beltz, distiratsu eta gozoak ikusten ditudala iruditzen zait, eta haren ahots hunkigarriaren soinuak durundi egiten didala belarrietan, eta bihotza larritzen dida-

la. Izaki xarmanta! Izaki paregabea! Joan zinen!
Badira hoge bat urte joan zinela; eta oraindik
ere bihotza kuzkurtu egiten zait zutaz oroitzean.

— Maite zenuen?

— Ez. Oi La Chaux! Oi Gardeil! Bata zein bes-
tea harrigarriak izan zineten; zu, emakumearen
samurtasunagatik; zu, gizonaren esker gaiztoa-
gatik. La Chauxko andereñoa familia onekoa
zen. Gurasoengandik alde egin zuen Gardeilen
besoetara. Gardeilek ez zuen ezer, La Chauxko
andereñoak bazituen ondasun batzuk; eta onda-
sun horiek osorik sakrifikatu zizkien Gardeilen
premia eta fantasiei. Emakumeak ez zuen damu-
rik izan fortuna xahutzeagatik, ez ohorea gal-
tzeagatik. Maiteak hartzen baitzion guztia.

— Gardeil hori oso liluragarria, oso maitaga-
rria zen, beraz?

— Inondik ere ez. Gizon kamuts, goibel eta
lehor bat; aurpegi iharrekoa, beltzaran-beltzara-
na; osotara, irudi mehe eta ahulekoa; itsusia,
gizon bat halakoa izan badaiteke izpirituaren
fisonomiaz.

— Eta neska xarmant bati burua galdu arazi
ziola, hala ere?

— Eta harritu egiten al zara?

— Beti.

— Zu?

— Ni.

— Baina ez al duzu gogoratzen Deschamps-ekin izan zenuen mentura, eta zein etsipen sako-nera erori zinen izaki hark atea itxi zizunean?

— Utz diezaiogun horri; jarraitu.

— Nik esaten nizun: «Oso ederra al da, bada?». Eta tristeki erantzuten zenidan: «Ez». «Hortaz, izpiritu garaikoa?». «Tentel bat da». «Beraz, haren dohainek bereganatu zaituzte?». «Bat besterik ez du». «Eta zein da, bada, talentu bitxi, liluragarri, zoragarri hori?». «Haren besoe-tan sekula beste edozein emakumerenetan baino zoriontsuago izan naizela». Baina La Chauko andereñoak, La Chauko andereño zin-tzo sentibera hark ezkutuan, senez, bere kasa, zuk dakizun zoriona opa zion bere buruari, zuri Deschamps emakumeari buruz esanarazten zizuna: «Baldin zorigaiztoko hau, galdu hau, ni bere etxetik botatzen setatzen bada, hartuko dut pistola bat eta neure burmuinez zipriztinduko

diot gelaurrea». Esan al zenuen halakorik, bai ala ez?

— Esan nuen, bai; eta oraindik ere ez dakit zergatik ez nuen hala egin.

— Onar ezazu bada.

— Nahi duzun guztia onartzen dut.

— Lagun, gutako zuhurrena ere ondo zoriontsua da emakume ederra edo itsusia, izpirituduna edo ergela aurkitu ez badu, Petites-Maisons-en atxilotzeraino erotuko zukeena. Izan dezagun gupida gizonez, gaitzetsi ditzagun neurritz; ikus ditzagun joandako urteak gure atzetik dugun gaiztakeriari ebatsitako uneak bailiran; eta ez dezagun pentsa inoiz, ikaraz ez bada, naturaren zenbait erakarmenen bortitzez, batez ere izpiritu bero eta irudimen gartsuengan. Ustekabean bol-bora-barrika batean erori den txinpartak ez du ondorio izugarriagorik eragiten. Zure edo neure gainean txinparta zorigaiztoko hori jaurtitzeko prest dagoen hatza altxatua da agian dagoeneko.

M. d'Hérouvillek, bere lana bizkortzeko irrikaz, nekepean zeuzkan bere lankideak. Gardeilen osasuna eskatu egin zen. Hari lana arintze-

ko, La Chauxko andereñoak hebraiera ikasi zuen; eta lagunak atsedean hartu bitartean, berak autore hebraitarren pasarteak interpretatzen eta transkribatzen ematen zuen gauaren zati bat. Aurore grekoak biluzteko garaia ere etorri zitzaion; La Chauxko andereñoak hizkuntza horretan iaiozeari ekin zion, bai baitzuen ezagupen apur bat. Eta Gardeilek lo egin bitartean, berak Xenofonte eta Tuzidideren pasarteak itzultzen eta kopiatzen jarduten zuen. Grekoaren eta hebreeraren ezagutzari, italierarena eta ingelesarena jarraitu zitzaizkion. Ingelesa Humeren metafisikako lehen entseguak frantsesetik emateraino menperatu zuen; gaiaren zailtasuna neurrigabe gehitzen zitzaion hizkuntzarenari obra hartan. Ikasten indar guztiak ahitzen zituenean, atsegin hartzen zuen musika idazten. Bere maitaleaz asperdura jabetuko ez ote zen beldur zenean, kantatu egiten zuen. Ez dut batere exageratzen, le Camus jaun mediku doktorea da lekuko, hura bere pena eta nekeetan kontsolatu baitzuen eta txirotasunean lagundu baitzion; zerbitzu etengabeak egin baitzizkion; buhardila batera jarraitu baitzion, pobretasunak hara era-

man zuenean, eta begiak itxi baitzizkion hil zenean. Baina haren lehen zorigaitzetako bat ahaztu zait: familia sumindu batek jazarri egin ziola harreman publiko eta ahalkeizungarriengatik. Egia eta gezurra erabili ziren haren askatasuna modu lotsagarrienean menderatzeko. Gurasoek eta apaizek auzoz auzo jazarri zioten, etxez etxe, eta zenbait urtez bakarrik eta ezkutuan bizitzera behartu zuten. Gardeilentzako lanean ematen zituen egunak. Gu gauean agertzen gintzaizkion; eta bere maitalearen aurrean, bere samin guztia, bere egonezin guztiak ezabatu egiten ziren.

— Hara! Gaztea, izutia, hainbeste ezbeharren artean sentibera, zoriontsua zen.

— Zoriontsua! Bai, beti izan zen, Gardeil eskergaiztoko agertu zitzaion arte.

— Baina ezinezkoa da hainbeste kalitate bitxiren, hainbeste samurtasun-seinaleren, hainbeste sakrifizio era guztietakoren ordaina eskergaiztoa izatea.

— Oker zaude, Gardeil eskergaiztoko izan zen. Egun batez, La Chauko andereñoa bakarrik aurkitu zen munduan, ohorerik gabe, fortunarik

gabe, babesik gabe. Ez naiz ondo ari: ni aldi batez izan nintzaion babes; le Camus doktorea, beti.

— Oi, gizonak, gizonak!

— Nortaz ari zara?

— Gardeilez.

— Gaiztoari begiratzen diozu; eta ez duzu ikusten ondo-ondoan gizon ongilea. Oinaze eta desesperaziozko egun hartan, niregana etorri zen. Goiza zen. Zurbil zegoen, hildako bat bezala. Bezperan jakin zuen bere zoria, eta sufrimendu luzeen aztarnak ageri zituen. Ez zuen negar egiten; baina bistan zuen negar asko egina zela. Besaulki baten gainera bota zuen bere burua; ez zuen ezer esaten; ezin zuen hitz egin; besoak luzatu zizkidan, aldi berean garrasika. «Zer dugu?», esan nion, hil egin al da?...». «Okerrago: ez nau maite; alde egin behar dit...»

— Segi.

— Ez nuke asmatuko; ikusi egiten dut, entzun egiten dut; eta begiak malkoz betetzen zaizkit. «Ez zaitu maite?...». «Ez». «Alde egin behar dizu?». «Bai. Beragatik egin dudan guztia egin ondoren!... Jauna, burua nahasten ari zait; erruki

zakizkit; ez nazazu abandona... batez ere ez nazazu abandona...». Hitzok esatean, besoak hartu eta indartsu estutu zizkidan, hurbilean norbait izan balu bezala, hartu eta eraman egingo zuela mehatxuka... «Ez izan beldurrik, andereño». «Neure buruari diot beldurra...». «Zer egin nezake zure alde?». «Lehenik, neuregandik salbatu... Ez nau maite! Nekatu egiten dut! Aspertu egiten dut! Higuindu egiten dut! Gorrotatu egiten nau! Alde egin behar dit! Utzi egin behar nau, utzi!». Hitz hau errepikatu ondoren, isiltasuna etorri zen; eta isiltasun haren ondoren, barre-argara dardarazko batzuk, desesperantzaren garrasiak edo hiltamuzko arnasestua baino mila aldiz beldurgarriagoak. Ondoren negarra, oihuak, mintzo ahoskagabea, zerura begiradak, ezpain dardarkariak, oinaze-samalda bat berez etortzen utzi beharrekoa; horixe egin nuen; eta ez nintzaion hasi arrazoika, harik eta haren arima puskatuta eta deseginda ikusi nuen arte. Orduan ekin nion: «Gorrotatu egiten zaitu, alde egin behar dizu! Eta nork esan dizu hori?». «Berak». «Tira, andereño, itxaropen eta adore pixka bat. Ez da munstro bat...». «Zuk ez duzu

ezagutzen; ezagutuko duzu. Ez da beste halako munstrorik, ez da sekula izan». «Ezin dizut sine-tsi». «Ikusiko duzu». «Beste norbait maite al du?». «Ez». «Ez al diozu zerorrek susmabiderik eman, nahigaberen bat?». «Ezta batere». «Zer ote da, beraz?». «Nire ezereza. Jadanik ez dut ezer. Jadanik ez naiz gauza ezertarako. Haren anbizioa; beti izan baita anbiziotsua. Nire osasuna galtzea, nire xarma galtzea; hainbeste sufri-mendu, hainbeste neke izan baitut; asperdura, nazka». «Maitale izateari utzi bai, baina adiskide segi dezakezue». «Jasanezina bihurtu natzaio; nire presentzia astun zaio, ni ikusteak samindu eta nahigabetu egiten du. Bazeneki zer esan didan! Bai, jauna, esan dit nirekin hogeita lau ordu pasatzera kondenatuko balute, leihotik behera egingo lukeela salto». «Baina halako ezin ikusia ez da bat-bateko kontua». «Zer dakit nik? Berez hain da erdeinaria! Hain kasu gutxi egiten dit! Hain da hotza! Hain da zaila arimen barrua irakurtzea! Hain da gogorra norberaren herio-zigorraren epaia irakurtzea! Esan egin dit, eta zeinen gogor esan ere!». «Ez dut ezer ulertzen». «Gauza bat eskatu nahi dizut, eta horretarako

etorri naiz: emango al didazu?». «Zernahi dela ere». «Hara. Zuri begirunea dizu; badakizu zenbat zor didan. Agian gorritu egingo da zure aurrean den bezalako azaltzen. Ez, ez dut uste horretarako kopetarik edo indarrik izango duenik. Emakume bat baino ez naiz, eta zu gizona zara. Gizon samur, zintzo eta zuzen batek badu itzalik. Begirunea izango dizu. Emadazu besoa, eta ez ukatu harenera niri lagun egitea. Zure aurrean hitz egin nahi diot. Nork daki nire oinazeak eta zure presentziak zer egingo dioten? Lagunduko al didazu?». «Oso gustura». «Goazen...».

— Susmoa dut horien oinazeak eta presentziak ez dutela ezertarako balioko. Nazka! Gauza izugarria da gero nazka maitasunean, eta emakume batez!...

— Esku-orga bat eskatzeko agindu nuen; ez baitzen gauza oinez joateko. Iritsi ginen Gardeilenera, etxe berri hartara, Hyacinthe kaleko eskuinaldean dagoen bakarrera, Saint-Michel plazatik sartuta. Han, eramaileak gelditu egin ziren; ireki dute atea. Zain nagokio. Emakumea ez da irteten. Hurbildu natzaio, eta sekulako dar-

darizo batek hartutako emakumea ikusten dut; hortzek karraska egiten diote sukar-ikaran bezala; belaunak elkar joka dauzka. «Unetxo bat, jauna; barkamena eskatzen dizut; ez nuke asma-tuko... Zer egin behar dut nik hor? Alferrik atera zaitut zeure eginkizunetatik; sentitzen dut; barkamena eskatzen dizut...». Hala ere besoa luzatu nion. Hartu zidan, eta jaikitzen saiatu zen; ezin, ordea. «Unetxo bat oraindik, jauna, esan zidan; pena ematen dizut, nire egoerak nahigabetu egiten zaitu... Azkenean sendotu zen pittin bat, eta aulkitik irtenez, erantsi zuen ahapeka: «Sartu egin behar dut; ikusi egin behar dut. Zer dakit nik? Agian hil egingo naiz...». Zeharkatu dugu patioa; iritsi gara apartamentuko atera; Gardeilen gelan gaude. Bere bulegoan zegoen, etxeko jantzian, gaueko kapelarekin. Agur egin zidan eskuaz, eta esku artean zuen lanarekin jarraitu zuen. Gero, niregana etorri eta esan zidan: «Ados izango zara, jauna: emakumeak oso nekagarriak dira. Barka eta barka eskatzen dizut andereñoaren erokeriengatik. Gero, bizirik baino hilda gehiago zegoen gajo hari: «Andereño, esan zion, zer nahi didazu oraindik? Uste dut

hain argi eta garbi azaldu dizudanaren ondoren, gure arteko guztiak amaituak direla. Esan dizut ez zaitudala maite; buruz buru esan dizut; zure asmoa, itxura denez, jaun honen aurrean berresan diezazudan da; ondo da, andereño, ez zaitut maite. Zuganako maitasuna sentimendu itzalia da nire bihotzean; eta erantsiko dut, honek kontsolatzen bazaitu, baita beste edozein emakumerenganako ere». «Baina esadazu zergatik ez nauzun jadanik maite». «Ez dakit; dakidan guztia, hasi ere zergatik ez nekiela hasi nintzela; zergatik ez dakidala amaitu dudala; eta ezinezkoa deritzodala grina hori berriro etor dadin. Gaztetako erokeria bat, eta pozik nago erabat sendatu naizelako». «Zer egin dut gaizki?». «Ezertxo ere ez». «Kexuren bat al duzu ezkutuan nire portaeraz?». «Ezta txikiena ere; gizon batek desira dezakeen emakumerik saiatuena, zintzoena, samurrena izan zara». «Nire esku zegoen zerbait ahaztu al dut?». «Ezer ez». «Ez al dizkizut nire gurasoak sakrifikatu?». «Egia da». «Nire fortuna?». «Desesperatu egiten nau horrexek». «Nire osasuna?». «Baliteke». «Nire ohorea, nire izen ona, nire atsedena?». «Nahi duzun guztia».

«Eta hala ere gorrotatu egiten nauzu!». «Gogorra da esatea, gogorra entzutea, baina horretara ezkerro, onartu beharra dago». «Gorrotatu egiten nau! Badakit, bai, eta ez nau gehiago estimatzen! Gorrotagarria! Ah! Jainkoa!...». Hitz horiek esanda, heriotzaren zurbila zabaldu zitzaion aurpegira; ezpainak kolorgetu egin zitzaizkion; izerdi hotzaren tantak, masailetan, begietatik jaitzen zitzaizkion malkoekin nahasten ziren; itxita zituen begiak; burua besaulkiaren bizkarrera itzuli zuen; hortzak estutu zituen; soin-atal guztiak ikara batean zituen; ikara haren ondotik hildura bat jarraitu zitzaion, etxeko atean erne zitzaion itxaropenaren amaia iruditu zitzaidana. Horrela irauteak beldurtu egin ninduen. Besana kendu nion; soinekoko lokarriak askatu nizkion; gonetakoak laxatu, eta ur freskozko tanta batzuk bota nizkion aurpegira. Begiak erdi ireki zituen; eztarritik murmur sor bat atera zuen; zerbait ahoskatu nahi zuen: gorrotatu egiten nau; eta hitzaren azken silabak besterik ez zituen ebakitzen; gero txilio zorrotza jaurti zuen. Beta-zalak itxi zituen; eta kordea galdu zuen berriz. Gardeilek, hotz-hotz bere besaulkian eserita,

ukalondoa mahai ganean eta burua eskuan, hunkitu gabe begiratzen zion, eta niri uzten zidan helegite lana. Zenbait aldiz esan nion: «Baina jauna, hil behar zaigu... norbaiti deitu beharko genioke». Irribarrez eta sorbaldak jasoz erantzun zidan: «Emakumeek bizitza gogorra dute; ez dira hain gutxigatik hiltzen; hau ez da ezer; pasatuko zaio. Ez dituzu ezagutzen; nahi duten guztia egiten dute beren gorputzarekin...». «Azkenetan dago, esaten dizut. Izan ere, gorputza indarrik eta bizirik gabe zuen; besaulkitik ihes egiten zuen, eta eroriko zen lurrera, eskuinaz edo ezkerrez eutsi ez banio. Hala ere Gardeil bat-batean zutitu zen; eta bere gelan batera eta bestera, honela zioen egonezinez eta umore txarrez: «Nahiago nukeen eszena gogai-karri hau beretzat gorde balu; baina azkena izango ahal da. Zer arraio nahi ote du emakume honek? Maite izan dut; horma buruaz jo ere egingo nuke, baina horrek ez luke zipitzik ere aldatuko. Jadanik ez dut maite; honez gero jakin behar luke, eta ez badaki ez du sekula jakingo. Dena esana dago...». «Ez, jauna, dena ez Mago esana. Bai zera! Zuk uste duzu gizabidez ari den no, bai-

tek guztia ken diezaiokeela emakume bati, eta gero utzi?». «Zer nahi duzu egitea? Ni ere bera bezain pobrea naiz». «Zer nahi dudan zuk egitea? Zeure miseria zerorrek eragindako beraren miseriarekin bat egin dezazula». «Horixe esateko gogoia baduzu... Bera ez legoke hobeto, eta ni askoz okerrago nengoke». «Horrela jokatuko al zenuke dena eman dizun lagun batekin?». «Lagun bat! Lagun bat! Ez dut fede handirik lagunengan; eta esperientzia honek erakutsi dit grinei ere batere federik ez izaten. Amorratuta nago lehenago jakin ez dudalako». «Eta bidezkoa da zorigaiztoko hau zure bihotz gaiztoaren biktima izatea». «Eta nork esan dizu hilabete, bi hilabete geroago, ni ere ez nintzatekeela beraren bihotz gaiztoaren biktima izango, hain ankerki?» «Nork esan didan? Berak zuregatik egin duen guztiak, eta dakusazun bezala egoteak». «Berak niregatik egin duenak! Jainkoarren, nahikoa ordaindu diot hainbeste denbora alferrik galduz». «Ah! Gardeil jauna, a zer konparazioa zure denboraren eta hartu dizkiozun gauza preziogabe guztien artean!». «Ez dut ezer egin, ez naiz inor, hogeita hamar urte ditut; badut garaia,

orain edo inoiz ez, neure buruaz arduratzeko, eta txorakeria hauek guztiak balio duten beste preziazteko...».

Bien bitartean, andereño gajoa bere onera etortzen hasia zen. Azken hitzok entzutean, bizi samar ekin zion: «Nork aipatu du denbora alferrik galtzea? Lau hizkuntza ikasi ditut, berari lanak arintzearren; mila liburu irakurri ditut; idatzi, itzuli, kopiatu egin dut gau eta egun; neure indarrak ahitu ditut, neure begiak erabili, odola erre; gaixotasun nekoso bat neureganatu dut, agian sekula sendatuko ez dena. Hau ez da ausartzen bere asperduraren arrazoia aitortzen; baina oraintxe ezagutuko duzu». Berehala kentzen du besana; beso bat atera du arropetatik; sorbalda biluztu du; eta disipula-zetaka bat erakutsiz, egiten dit: «Hona hemen horren aldaketaren arrazoia; hona hemen beilan pasatutako gauen ondorioa. Bera goizean iristen zen bere pergamino bilduekin. M. d'Hérouvillek presa handia du hemen barruan zer dagoen jakiteko; biharko egina behar luke; eta bera zen...». Une hartan, norbaiten pausoak aditu genituen ate ondoan; zerbitzari bat zen, Hérouvilleko jauna-

ren etorreraren berri emateko. Gardeil zurbildu egin zen. La Chauxko andereñoari iradoki nion arropak ondo paratu eta erretiratzeko... «Ez, esan zidan, ez; hemen geratuko naiz. Agerian jarri nahi dut doilor hau, Hérouvilleko jaunari itxarongo diot, hitz egingo diot». «Eta zertarako balioko dizu horrek?». «Ezertarako ez, erantzun zidan; arrazoi duzu». «Bihar damututa egongo zinateke. Utzi berari bere hanka-sartze guztiekin; zeure duin duzu mendeku hori». «Baina bere duin al da? Ez al duzu ikusten gizon hau ez dela... Goazen, jauna, goazen bizkor; bestela ez dakit zer egingo dudan, zer esango dudan...». La Chauxko andereñoak lipar batean konpondu zuen eszena hark bere jantzietan eragindako desordena, eta habailan irten zen Gardeilen gelatik. Nik jarraitu egin nion, eta atearen danbategoa entzun nuen gure atzean. Gero, jakin nuen atezainari esan ziola ez berriro sartzen uzteko emakume hari.

Etxera eraman nuen, eta han aurkitu nuen le Camus doktorea gure zain. Neskarengan jarria zuen grina Gardeilengatik sentitzen zuenaren antzekoa zen. Gure bisita kontatu nion; eta bitar-

tean haren haserrearen, minaren, suminaren arrastoak...

— Ez zen oso zaila haren aurpegian ikustea zure arrakastarik eza ez zitzaiola oso gogoko.

— Egia da.

— Horra gizona. Ez du askorik balio.

— Haustura haren ondotik gaixotasun bortitza etorri zen, eta hartan mediku on, zintzo, samur eta delikatu hark ezin hobeto zaindu zuen, Frantziako damarik printzipalena baino hobeto. Egunean hiru, lautan etorri ohi zen. Arriskua zegoenean, emakumearen gelan oheratzen zen, ohantze batean. Ez da gaixotasun bat baino gauza hoberik nahigabe handietan.

— Geure buruaz ohartaraziz, besteen oroitza-pena baztertzen digu. Eta gainera aitzakia bat da inork jakin gabe eta trabarik gabe nahigabetzeko.

— Gogoeta hori, berez bidezkoa bada ere, ez zegokion La Chauxko andereñoari.

Gaixoaldian hark bere denbora nola erabili konpondu genuen. Bazuen izpiritua, irudimena, gustua, ezagutza, Arte Ederren Akademian sartzeko behar direnak baino gehiago. Hainbeste

aldiz entzun zigun metafisikaz, non gairik abstraktuenak ezagunak baitzitzaizkion; eta lehen literatur ahalegina Humeren *Giza ezagutzari buruzko entseguak* izan zen. Neuk berrikusi nuen; eta bene-benetan, ez nuen izan zer zuzendu handirik. Itzulpen hura Holandan inprimatu zuten, eta irakurlegoak ondo hartu zuen.

Nire *Gorren eta Mutuen gaineko Gutuna* ia aldi berean agertu zen. Berak proposatu zizkidan ohar fin-fin batzuek eranskin bati eman zioten bide, berari eskaini nion eranskin bati. Eranskin hura ez da nire lanik txarrena.

Mlle. de La Chauxi berriro etorri zitzaion alaitasun pittin bat. Doktoreak bazkaltzera gonbidatzen gintuen batzuetan, eta bazkari haiek ez ziren batere tristeak izaten. Gardeil urrundu ondoren, le Camusen grinak aurrerapen zoragarriak egin zituen. Egun batez, mahaian, postrean, zintzotasun, sentiberatasun, haur baten xalotasun guztiaz, gizon izpiritudun bat bezala mintzo zela, honela esan zion, niri neurrigabe gustatu zitzaidan lañotasun batez, besteei agian hainbeste gustatu ez bazitzaien ere: «Doktore, ezinezkoa da zuri dizudan estima inoiz areago-

tzea. Zure arretak gainezka egiten dit; eta Hyacinthe kalean bizi den munstro hori bezain beltza nintzateke eskerrik beroena sentituko ez banu. Zure buru argia ezin gogokoago dut. Hainbesteko fineziaz eta graziaz hitz egiten didazu zure grinaz non, nik uste, haserretu egingo bainintzateke gehiago hitz egingo ez bazenit. Zure konpainia galtzeko ideia bera edo zure adiskidetasunik gabe geratzeko ideia bera aski litzateke ni zorigaitzeko egiteko. Gizon ona zara, inoiz inor izan bada. Zure izaerak ez du parerik ontasunean eta gozotasunean. Ez dut uste bihotz bat esku hobeetan eror daitekeenik. Prediku egiten diot nireari goizetik gauera arte zure alde; baina alferrik dira prediku guztiak, onerako gogorik ez duenarentzat. Ez dut aurrera egiten. Bien bitartean zuk sufritu egiten duzu; eta nik pena ankerra sentitzen dut. Ez dut inor ezagutzen eskatzen duzun zorionaren duinagorik, eta ez dakit zer ez nukkeen egingo zu zorientsu egiteko. Ahal dudan guztia, salbuespenik gabe. Hara, doktore, ni... bai, ni oheratu ere egingo nintzateke, baita hori ere. Nirekin oheratu nahi al duzu? Esatea besterik ez duzu. Horra zure zerbitzuengatik egin

dezakedan guztia; baina zuk malta zaitzadan nahi duzu, eta hori nik ezin».

Doktoreak aditu egiten zion, eskua hartzen zion, musu ematen zion, bere malkoez bustitzen zion; eta ni, nik ez nekien zer egin, barre ala negar. La Chauko andereñoak ondo ezagutzen zuen doktorea; eta biharamunean, hau esan nionean: «Baina andereño, doktoreak hitza hartu balizu?», berak erantzun zidan: «Eutsi egingo nion hitzari; baina halakorik ezin zitekeen gerta; nire eskaintzak ez ziren hura bezalako gizon batek onartzeko modukoak...». «Zergatik ez? Nik, doktorearen lekuan izanda, beste guztia ondoren etorriko zela esperoko nukeen. «Bai; baina doktorearen lekuan zu izanda, La Chauko andereñoak ez zizukeen proposamen berbera egingo, noski».

Humeren itzulpenak ez zion diru askorik eman. Holandarrek nahi den guztia inprimatuko dizute, ezer ez ordaintzekotan.

— Gure zorionerako. Izan ere, izpirituari jartzan zaizkion traba guztiekin, haiek behin ordainduko baliote autoreei, liburugintzaren salerosketa guztia bereganatuko lukete.

— Entretenimenduzko obra bat egiteko aholkatu genion, ohore gutxiago baina probetxu gehiago izan zezan. Lauzpabost hilabetez arituzen, eta denboraldi horren buruan eleberritxo historiko bat ekarri zidan, *Hiru faboritak* tituluakoa. Estilo arina, fintasuna eta interesa zituen baina, bera ohartu gabe, ez baitzen gai inolako maleziatarako, erregeren amoranteari, Pompadourko markesari buruzko iradokipen ugariz jositazegoen; eta ez nion ezkutatu ezen, edozein sakrifizio eginda ere, edo haiek gozatuz, edo ezabatuz, ia ezinezkoa zela obra hura bera konprometitu gabe agertzea, eta hain ondo idatzita zegoena hondatzeko nahigabeak ez ziola beste nahigabe bat kenduko.

Nire oharron doitasun guztiaz konturatu zen, eta are gehiago samindu zen. Doktore onak behar guztiak betetzen zizkion; baina bera hainbat neurri handiagoz baliatzen zen haren onginahiaz, atzenduxea bazen ere gizonak espero zezakeen ezagutza. Bestalde, doktorea ez zen aberatsa orduan; eta ez zen oso egina aberasteko ere. Noizean behin, emakumeak bere idatzia ateratzen zuen portafoliotik; eta esaten zidan

tristeki: «Ondo da, ez dago ezer egiterik, hemen geratu beharko du». Nik aholku bitxi bat eman nion, alegia bidal ziezaiola obra idatzi bezala, gozatu gabe, ezer aldatu gabe, Mme. de Pompadourri berari, ohartxo batekin haren berri eman ez. Ideia hura gustatu egin zitzaion. Gutun xarmanta idatzi zuen alde guztietatik begiratuta, baina batez ere egi kutsuagatik: ez zegoen hari errefusa egiterik. Bi edo hiru hilabete joan ziren ezeren berri izan gabe; eta alferreko saiotzat jotzen zuenean, hara non agertzen zaion San Luisen gurutzedun bat etxean markesaren erantzunarekin. Merezi zuen bezala goraiatzat zion obra; eskerrak ematen zizkion sakrifizioagatik; onartzen zituen zenbait ziplada, baina ez zion irainik ikusten; eta Versalleserako gonbita egiten zion autoreari, non emakume abegitsua eta bere esku leudekeen zerbitzuak emateko prest aurkituko baitzuen. Mandatariak, Mlle de La Chauvignette irtetean, berrogeita hamar luiseko poltsa bat utzi zuen trebeki.

Doktoreak eta biok presatu egin genuen, arren Mme Pompadourren onginahia aprobetxatuz; baina merezimenduak adina apaltasun

eta herabetasun zituen neska batekin ari ginen. Nola agertu hara bere zarpailekin? Doktoreak berehala kendu zion zailtasun hura. Jantzien ondoren, beste aitzakia batzuk jarri zituen, eta gero beste batzuk. Versailleserako bidaiara atzeratuz joan zen egunetik egunera, harik eta hartarako komenentziarik ez izan arte. Denbora askoan ez genion hartaz hitz egin, eta hara non datorkion mandataria bera berriro erantzuki leunenez betetako bigarren gutun batekin eta lehen bezalako sari batekin, jaiara berarekin eskainita. Mme de Pompadourren ekintza opatsu hau ez da ezaguna. Collin jaunarekin hitz egin dut, haren konfiantzako gizona eta haren grazia sekretuen banatzailea zenarekin. Berak ere ez zuen ezagutzen; eta sinetsita nago ez dela haren hilobian gordetzen duen bakarra.

Halaxe, alferrik galdu zituen Mlle de La Chauhek miseriatik irteteko bi aukera.

Gero, hiriko muturrera aldatu zuen egoitza, eta nik erabat galdu nuen bistaz. Jakin izan dut haren bizitza ez dela izan nahigabe, gaixotasun eta miseria sorta bat besterik. Bere familiakoen ateak itxita izan zituen setatsu. Alferrik eskatu

zuen pertsonaia santu haien arartekotza, hainbesteko arduraz jazarri ziotenez geroztik.

— Hori gauza normala da.

— Doktoreak ez zuen abandonatu. Emakumea lasto gainean hil zen, bihitegi batean; aldiz, Hyacinthe kaleko tigre txikia, emakume hark izandako maitale bakarra, mediku izan zen Montpellier-en edo Tolosan, gizon abilaren ospe merezitakoa izan zuen, aise bizi, eta gizon zintzoaren ospe lapurtua.

— Baina hori ere gauza normal samarra da. Baldin eta Tanié on eta zintzoren bat bada, Reymer batengana bidaliko du Probidentziak; baldin eta de La Chaux on eta zintzorik bada, Gardeil baten kide bihurtuko du, dena modurik onenean gerta dadin.

Baina esango zait agian bizkorregi joatea dela gizon baten izaeraz behin-betiko epaia ematea ekintza bakar batengatik; hain erregela latzak erabat urrituko luke pertsona onen kopurua, kristauen ebanjelioak zeruan onartzen dituen aukeratuak baino gutxiago izateraino lurrean; badagoela maitasun kontuetan aldabera izatea, emakumeekin kezka gutxi izateaz

arrandiatzea bera ere, ohorea eta prestutasuna galdu gabe; ez dagoela norberaren eskuetan ez gartzen den grina bat itzaltzea, ez itzaltzen den beste bat luzatzea; badirela nahikoa gizon etxe eta kaleetan gizatxar izena merezi dutenak, zenbatezin bihurtuko lituzketen irudimenezko krimenak asmatzen ibili gabe. Galdetuko zait ea neuk ez dudan inoiz emakumerik traizionatu, engainatu, abandonatu motiborik gabe. Galdera horiek erantzun nahiko banitu, nire erantzuna ere ez litzateke geratuko ihardespenik gabe, eta amaigabeko eztabaida genuke, azken judiziorainokoa. Baina eskua zeuen kontzientzian jarrita, esadazue zinez, engainatzaile eta desleialen defendatzaile horiek, ea hartuko zenuketen Tolosako doktorea laguntzat... Duda egiten al duzue? Horrekin dena esana dago; eta horrenbestez, arren eskatzen diot Jainkoari ondo guarda ditza-la zeure omena egiteko gogoia emango dizuten emakumeak.

BOURBONNEKO BI ADISKIDEAK

Baziren bi gizon, Bourbonneko Orestes eta Pilades izenda daitezkeenak. Batek Olivier zuen izena, eta besteak Felix. Biak egun batean ziren jaioak, etxe batean eta bi ahizparengandik. Esne beretik hazi zituzten: baten ama haurra erditzean hil zenez, besteak hartu zuen bi haurren ardura. Elkarrekin hezi zituzten. Beti besteengandik bereiz ibiltzen ziren. Izan bagaren bezala, bizi garen bezala maite zuten elkar, batere dudarik egin gabe; une oro sentitzen zuten hori, eta agian inoiz ez zioten elkarri esango. Olivierrek bizia salbatu zion behin Felixi, hau beti ibiltzen baitzen igerilari onarena eginez, harik eta behin ia-ia ito zen arte. Ez bata ez bestea oroitzen ziren hartaz. Felixek ehun aldiz atera zuen Olivier mentura zailetatik, honen izaera oldarkorrak hartara eraman eta gero; eta inoiz ez zuen pentsatu eskerrak ematerik; elkarrekin itzultzen ziren etxera, hitz egin gabe, edo beste edozertaz hitz eginez.

Soldadutzara joateko garaia etorri zenean, lehen txartel zorigaiztokoa Felixi tokatu zitzaioenez, honela esan zuen Olivierrek: «Bestea niretzat». Egin zuten beren zerbitzualdia; itzuli ziren beren herrialdera. Aurrez baino elkar-maiteago itzuli ote ziren, horixe ezin dizut esan ziur; izan ere, anaiatxo, elkarri egindako faboreek asko pentsatu ondorengo adiskidantzen oinarri badira ere, agian ez diete ezer egiten adiskidantza animal edo etxetiar deituko nituzkeenei. Armadan, borrokaldi batean, Olivierri sable-kolpe batez burua hautsi behar ziotelarik, Felix pentsatu gabe aurreratu zen kolpea hartzera, eta aurpegian hartu zuen zauria; batzuek diote barro zegoela zauri harengatik; nik ez dut uste. Has-tembeck-en, Olivierrek hildakoen pilatik atera zuen Felix, han geratua baitzen. Galdetzen zietenean, batzuetan hitz egiten zuten besteagandik jasotako laguntzez, baina inoiz ez besteari emandakoez. Felixek hau, esango zuen Olivierrek; Olivierrek bestea, esango zuen Felixek; baina ez zuten elkar goresten. Herrialde hartan denboraldi batez bizi ondoren, maitemindu egin ziren; eta halabeharrak hala ekarrita, neska ber-

beraz maitemindu ziren biak. Ez zen inolako etsaigorik izan bien artean; bestearen amodioaz ohartu zen lehenak atzera egin zuen: Felixek, alegia. Olivier neskarekin ezkondu zen; eta Felix, zergatik ez zekiela bizitzaz nazkatuta, era guztietako lantegi arriskutsuetara eman zen; azkena, kontrabandoa.

Badakizu, anaiatxo, Frantzian lau epaitegi direla kontrabandistak epaitzeko: Caen, Reims, Valence eta Tolosa; eta lauretan gogorrena Reimsekoa da. Coleau izeneko bat da epaile han, naturak inoiz eman duen arimarik beldurgarriena. Felix armak eskutan zituela harrapatu zuten, Coleau beldurgarriaren aurrera eramane eta hark heriotza-zigorra ezarri zion, aurreko beste bostehun laguni bezala. Olivierrek Felixen egoera jakin zuen. Gau batez, jaiki emaztearen ondotik eta, hari ezer esan gabe, abiatu da Reimsera. Jo du Coleau epailearengana; ahuspeztu zaio oinetan, eta Felix ikusteko eta besarkatzeko grazia eskatu dio. Coleau begira geratu zaio, une batez isildu egin da, eta esertzeko adierazi dio keinu batez. Olivier eseri. Handik ordu erdira, Coleauk aterata bere erlojua eta esaten dio Olivierri: «Hire

laguna bizirik ikusi eta besarkatu nahi baduk, habil bizkor, bideak duk eta; eta nire erlojua ondo badabil, hamar minutu baino lehen zintzilikatuko ditek». Olivier, suminak hartuta, jaiki, makilakada izugarria jo Coleauri kokotean, eta erdi hilik uzten du; joan da korrika plazara, iritsi da, hasi da oihuka, jo du borreroa, jo ditu justiziako gizonak, matxinatu du exekuzio haiengatik haserre zegoen jendetza. Harriak hegan; Felixek libratuta hanka egiten du; Olivierrek uste du salbu dela bera ere; baina jendarme batek saihe-tsa zulatua zion baionetaz, bera ohartu gabe. Iritsi zen herriko atera, baina aurrerago ezin; garraiari bihotz oneko batzuek beren gurdi gainean hartu zuten, eta etxeko ate aurrean utzi azken hatsa emateko zegoenean; andreari hau esateko bestetarako astirik ez zuen izan: «Andre, zatoz, besarkatu egin nahi zaitut; hiltze-ra noa, baina gure muturbeltza salbu da».

Arratsalde batez, ohi bezala, paseoan genbiltzala, emakume garai bat ikusi genuen txabola baten aurrean, oinetan lau haurtxo zituela; bere itxura triste eta irmoak gure arreta erakarri zion, eta gure arretak harena ekarri zuen. Une batez

isilik egon ondoren, honela esan zigun: «Hara lau haurtxo. Ni naiz lauren ama, eta ez dut senarrik». Gure errukia bereganatzeko modu jaso hark hunkitu egin gintuen. Gure laguntza eskaini genion, bai eta berak erabidez hartu ere; orduan jakin genuen haren senar Olivierren eta honen adiskide Felixen istorioa. Arduratu gara hartaz, eta gure gomendioa ez ahal zitzaion alferrekoa gertatuko. Ikusten duzunez, anaiatxo, arima-handitasuna eta kalitate garaiak gradu eta herrialde guztietan agertzen dira; inor ilun hiltzen bada, antzoki egokiagoaren ezean hiltzen da hala; eta ez dago indiarrengana joan beharrik bi adiskide aurkitzeko.

Testalunga bandidoak Sizilia bere taldeaz astintzen zuen garaian, preso hartu zuten Romano, haren adiskide konfiantzazkoena. Testalungaren laguntzailea zen, haren ondorengoa. Romano honen aita atxilotu egin zuten. Barkamena eta libertatea agindu zioten, baldin eta Romanok Testalunga traizionatu eta entregatzen bazien. Semearen baitan borroka bortitza izan zen maitasunaren eta adiskidetasun zin-eginaren artean. Baina Romano aitak berak konbentzi-

tu zuen semea adiskidetasuna lehenesteko, bizia traizio bati esker salbatzeko beldurrez. Romanok kasu egin zion aitaren aholkuari. Romano aita hil egin zuten; eta torturarik ankerrenek ezin izan zioten atera bere lagunen salaketa Romano semeari.

* * *

Anaiatxo, Felixen berri jakin nahi zenuke; oso bidezkoa duzu jakin-min hori, eta motiboa hain da goresgarria non geure buruari ahakar egin diogun geuk lehenago izan ez dugulako. Huts hori betetzeko, lehenik Papin jaunaz gogoratu gara, teologi doktorea den eta Bourbonneko Santa Marian apaiz dagoenaz: baina amak iritzia aldatu du; eta Aubert azpiordezkaria lehenetsi dugu, gizon ona eta ondo betea baita, eta honako kontakizun hau bidali digu, egitasun osokoa, inola ere:

«Felix izenekoa hori, bizi da oraindik. Justiziarren eskuetatik ihes eginik, probintziako basoetan barrendu zen, hango nondik norako guztiak ondo ikasiak baitzituen kontrabandoan ari

zenean, eta Olivierren etxera hurbiltzen saiatu zen pixkanaka, ez baitzekien hila zenik.

«Baso baten bihotzean —zeuek ere ibiliak zarete inoiz han paseoan—, ikazkin bat bizi zen, era guztietako jendearen babesleku zen etxola batean; bere salgaien eta armen biltegi ere bazuen; haraxe jo zuen Felixek, jendarmeen eskuetara erortzeko arriskuan ibili eta gero, atzetik baitzituen. Lagun batzuek zabaldua zuten Reimsen atxilo hartu zutelako berria;; eta ikazkina eta emaztea hil zutelakoan zeuden, hura agertu zenean.

«Aspaldi ez dela hil den emaztearengandik jaso bezala kontatuko dizuet guztia.

«Haurrek ikusi zuten lehenik, etxolaren inguruan jolasean zebiltzala. Hura, gazteena laztantzen geratu bitartean, bere besoetakoa baitzuen, besteak etxolan sartu ziren oihuka: Felix! Felix! Aita eta ama oihu berberarekin irten ziren pozik; baina gizajo hark ezin izan zien ezer erantzun, hain zegoen akituta, eta haien besoetan erori zen korderik gabe.

«Jende on hark zeukanarekin lagundu zion; ogia, ardoa, barazki batzuk eman zizkioten; jan zuen, lokartu zen.

«Esnatzean, haren lehen hitza izan zen: “Olivier! Haurrak, ez al dakizue ezer Olivierrez?” “Ez”, erantzun zioten. Reimseko mentura kontatu zien; gaua eta biharamuna haiekin eman zituen. Hasperenka, Olivierren izena errepikatzen zuen, Reimseko presondegian zegoela uste baitzuen; hara joan nahi zuen; harekin batera hil nahi zuen; eta kostata lortu zuten ikazkinak eta emazteak asmo hartatik atzentzea.

«Bigarren gauaren erdi aldera, hartu bere fusila, jarri sablea besapean eta, ikazkinari ahapeka... “Ikazkin!”

«— Felix!

«— Har ezak aizkora eta goazemak.

«— Nora!

«— A ze galdera! Olivierrengana.

«Abiatu dira; baina basotik irtetea, hara non inguratzen dituen jendarme talde batek.

«Ikazkinaren emazteak esandakoari lotzen natzaio, baina harrigarria da bi gizon oinezkok zaldizko hogei gizoni aurre egin izana; hauek

sakabanatuak ziren, nonbait, eta bizirik harrapatu nahi beren ehiza. Nolanahi ere, ekintza oso gogorra izan zen; bost zaldi hesteak aterata eta zazpi zaldizko aizkoraz edo sablez joak. Ikazkin gizajoa bertan hil zuten buruan tiroa jota; Felixek basoan sartzea lortu zuen; eta sinestezinezko arintasuna duenez, batetik bestera lasterkatu zen; lasterkatu ahala, fusila kargatu, tiroa jo, txistu egiten zuen. Txistu haiek, tiro haiek, tarte desberdinetan eta alde desberdinetatik jota, beldurtu egin zituzten zaldizko jendarmeak, han ez ote zebilen kontrabandista talde bat, eta bizkor erretiratu ziren.

«Felixek urruntzen ikusi zituenean, atzera borrokalekura itzuli zen. Hartu ikazkinaren gorpua lepoan eta etxolarako bidean jarri zen. Ikazkinaren emaztea eta haurrak lo zeuden artean. Atean gelditu, jarri gorpua bere oinetan, eta bizkarra arbola bati emanda eta aurpegia etxolaren sarrerarantz zuela eseri zen. Hara zer ikuskizun emaztearentzat bere egileorretik irtetean.

«Esnatu da, senarra falta du alboan; begiez Felix bilatu, eta Felixik ez. Jaiki da, irten da, ikusi du, hasi da oihuka, zerraldo erori da. Haurrak ere

etorri dira korrika, ikusi dute eta oihuka hasi dira; aitaren gainean, amaren gainean dabilta. Emaztea, haurren zarata eta negarrek bere onera ekarririk, biloak erauzten hasten da, masailak atzamarkatzen. Felixek, arbolaren oinean geldi, begiak itxita, burua atzera itzulita, honela egiten zien ahots itzaliz: «Hil nazazue». Isiltasuna egin zen une batez; ondoren, atzera ere oinazea eta negarrak, eta Felixek berriro: «Hil nazazue; haurrak, erruki zaitetze, hil nazazue».

«Horrela eman zituzten hiru egun eta hiru gau oinazetan; laugarrenean, egiten dio Felixek ikazkinaren emazteari: «Andre, har ezazu zure morrala, sartu bertan ogia, eta segi niri». Gure mendi eta basoetan zehar ibili luzea egin ondoren, Olivierren etxera iritsi ziren; dakizun bezala, herriaren mutur batean dago, bidea bitan urkultzen den unean; bide bat Franche-Comtéra doa, eta bestea Lorenara.

Hantxe jakin zuen Felixek Olivierren heriotzaren berri, eta beragatik hildako bi gizonen alarguntsen artean aurkitu zen. Sartu eta esaten dio bat-batean Olivierren emazteari: «Non da Oli-

vier?» Emakumearen isiltasunaren aurrean, haren jantziak, negarrak ikusita, ulertu zuen Olivier zendua zela. Ondoeza egin zitzaion; erori eta ore mahaiaren kontra jo zuen buruaz. Bi alarguntsek altxatu zuten; odola isuri zitzaien gainera; eta beren mantalez xukatzen ari ziren bitartean, gizonak esaten zien: «Eta zuek haien emazteak izan, eta hala ere lagundu egiten didazue!» Gero kordea galdu zuen; atzera bere onera etorri eta egiten zuen hasperenka: «Zergatik ez ninduen utzi? Zergatik etorri zen Reimsera? Zergatik utzi zioten etortzen?...» Gero burua galtzen zuen, haserreak hartzen zuen, eta lurrian jiraka hasita arropak urratzen zituen. Oldarraldi haietako batean, hartu sablea eta bere burua hil behar zuen, baina bi emakumeek gainera salto egin zioten, laguntza eske; auzokoak etorri ziren; sokaz lotu zuten eta zazpi edo zortzi aldiz atera zioten odola. Haserrea ematu egin zitzaion indarrak galtzean; eta hilda bezala geratu zen hiruzpalau egunez, eta denboraldi horren buruan kordea itzuli zitzaion. Lehen unean, begiak inguruan jarri, lo sakon batetik irten den gizona bezala, eta esan zuen: «Non nago? Andreok, nortzuk

zarete?» Ikazkinaren emazteak erantzun zion: «Ni ikazkinaren emaztea naiz...». Berak berriro: «Ah! bai, ikazkinaren emaztea... Eta zu?..». Olivierren emaztea isildu egin zen. Gero negarrari eman zion, hormari begira jarrita, eta esan zuen negar-zotinka: «Olivierrenean zaude... Ohe hau Olivierrena da... Eta ni neu Olivierren emaztea nintzen! Ai ene!».

«Hain ondo zaindu zuten bi emakumeek, halako errukia sentiarazi zioten, hainbesteko indarrez eskatu zioten bizitzeko, hain modu harrigarrian erakutsi zioten bera zela haien baliabide bakarra, non azkenean sinetsi egin baitzien.

«Etxe hartan egon zen denbora guztian, ez zen sekula oheratu. Gauean irteten zen, landan zehar ibiltzen zen alderrai, lurrean iraulkatzen zen, Olivierri deika; emakumeetako batek jarraitu egiten zion, eta eguna urratzerako etxera ekartzen zuen.

«Askok zekiten Felix Olivierren etxean zela; eta haien artean baziren asmo txarrekoak. Bi alarguntsek ohartarazi zioten zein arriskutan zegoen: eguerdi batez, banku batean zegoen

eserita, sablea belaunetan, ukalondoak mahai baten ganean eta bi ukabilak begietan. Lehenik ez zuen erantzun ezer. Olivierren emazteak hamazazpi-hemezortzi urteko mutil bat zuen, ikazkinarenak hamabosteko alaba bat. Bat-batean esan zion ikazkinaren alarguntsari: «Ikazkina, zoaz alabaren bila eta ekarzu hona...» Belardi-sail batzuen jabe zen, eta saldu egin zituen. Ikazkinaren andrea alabarekin etorri zen, Olivierren semea harekin ezkondu zen; Felixek zelaien dirua eman zien, besarkatu egin zituen, barkamena eskatu zien negarrez; eta etxolan jarri ziren bizitzen, eta han dira oraindik, beste haurren aita-amatzakoak eginez. Bi alarguntsak elkarrekin bizi izan ziren; eta Olivierren hurrek aita bat eta bi ama izan zituzten.

«Orain urte t'erdi edo hil zen ikazkinaren andrea. Olivierren andreak oraindik ere negar egiten du harengatik egunero.

«Arratsalde batez, Felixen zaindari zeudela (izan ere, bietarik bat beti izaten zuen begirale), ikusi zuten negar batean hasi zela; besoak haiengandik bereizten zuen aterantz luzatu zituen isilik, eta segidan atua egiten jarraitu

zuen. Ez zioten ezer esan, ondo asko baitzekiten zein beharrezko zen hark alde egitea. Hitzik esan gabe afaldu zuten elkarrekin. Gauean, gizona jaiki egin zen; emakumeak ez zeuden lo; hanka-puntetan joan zen aterantz, eta irten egin zen. Bi emakumeek estu-estu besarkatu zuten elkar, eta gau osoa negarrez eman zuten. Auskalo non gorde zen Felix; baina ez zaie asterik joaten haren lagungarririk jaso gabe.

«Ikazkinaren alaba eta Olivierren semea bizi diren basoa Leclerc de Rançonières izeneko batena da, gizon guztiz aberats eta eskualde hartan den Courcelles herriko jaunarena, alegia. Egun batez, Rançonièresko edo Courcellesko jauna, nahi duzuen bezala, basoan zehar zebilen ehizan; Olivierren semearen etxolara iritsi zen; sartu da, hasi da hurrekin jolasean, oso politak baitziren; egin dizkie galdera batzuk; andrea, hura ere ez baitzen batere itsusia, gogoko egin zitzaion; gurasoen menturaren berri izan zuen, Felixentzat barkamena eskatuko zuela agindu zien; eskatu zuen, eta bai lortu ere.

«Felix Rançonièresko jaunaren zerbitzuan hasi zen ehiza-guarda gisa.

«Baziren pare bat urte Rançonieresko gazteluan bizi zela, eta bere soldataren parte handi bat bidaltzen zien bi alarguntsei; baina hara non, nagusiari zion atxikimenduak eta bere izaera burgoiak arazo batean sarrarazi zuten; hasieran ez zen ezer, baina gerora ondorio latzak izan zituen.

«Rançonieresko jaunak Fourmont izeneko jaun bat zuen auzo, Ch...-ko epaitegiko kontseilaria. Mugarri bakar batek bereizten zituen bi etxaldeak; mugarri hark traba egiten zuen Rançonieresko jaunaren atarian, eta oztopatu egiten zuen gurdien sarbidea. Rançonieresko jaunak oinbete batzuk atzerarazi zuen Fourmont-eko jaunaren etxerantz; honek berriro beste hainbeste mugitu zuen mugarria Rançonieresko jaunaren etxerantz; ondotik, gorrotoa, irainak, istilua bi auzoen artean. Mugarriaren auziak beste bi edo hiru auzi larriago sorrarazi zituen. Gauzak horretara iritsiak zirelarik, arratsalde batez Rançonieresko jaunak, bere guarda Felixekin ehizatik itzultzean, Fourmonteko jaun magistratuarekin eta honen anaia militararekin egin zuen topo. Honek esan zion anaiari: “Anaia,

zer deritzozu agure gaizto honi aurpegia markatzen badiogu?”. Rançonieresko jaunak ez zituen aditu hitzok, baina Felixek bai, zoritxarrez. Ozarki mintzatu zitzaion gazteari: “Jaun ofiziala, benetan ausartuko al zinateke esan duzun hori betetzen?”. Berehala, utzi fusila lurrean eta heldu dio sableari, ez baitzen inora joaten bere sablea gabe. Militar gazteak atera du ezpata zorrotik, oldartu zaio Felixi; Rançonieresko jauna etorri, tartean jarri eta heldu dio bere ehiza-guardari. Bitartean, militarrek fusila hartu eta tiroa jaurtitzen din Felixi, baina huts egin; honek sable-kolpe bat jaurtitzen dio, eta kolpeaz ezpata kentzen dio gazteari eskutik, eta ezpatarekin beso erdia: horra hor auzi kriminal bat, hiruzpatalau auzi zibilekin batera; Felix kartzelan atxilotuta; prozesu izugarria; eta prozesuaren ondoren, bere karguaz eta ia ohoreaz gabetutako magistratu bat, armadatik kanporatutako militar bat, Rançonieresko jauna penaz hilda, eta Felix kartzelan beti ere, Fourmontarren gorrotopean. Fin gaizto egingo zukeen, maitasuna laguntzera etorri ez balitzaio; kartzelariaren alaba maitemindu zitzaion eta ihes egiten lagundu zion: hau egia

ez balitz ere, gutxienez denen ahotan dabil. Felix Prusiara joan zen, eta egun gardien errejimen-
duan ari da zerbitzuan. Kideek estimatu egiten
omen dute, erregeak berak ere ezagutzen omen
du. *Tristea* du ezizen; Olivierren alarguntsak
esan dit Felixek lagungarriak bidaltzen dizkiela
oraindik.

Hau da, andere, Felixen istorioaz jakin ahal
izan dudan guztia. Nire kontakizunari Papin gure
parroko jaunaren gutun bat eransten diot. Ez
dakit zer dioen bertan, baina beldur naiz apaiz
horrek, burugogorra eta gaizto samarra izaki,
bere aurreiritzien arabera arituko zaizula Olivier
eta Felixez. Arren eskatzen dizut, andere, lot
zakizkie egintzei —zaude ziur egia direla—, bai
eta zure bihotzaren ontasunari ere, hobeto ahol-
katuko baitizu hark Sorbonako lehen kasuistak
baino —eta hori, noski, ez da Papin jauna.

TEOLOGIAN DOKTORE
ETA BOURBONNEKO SANTA MARIAKO
PARROKOA DEN
PAPIN JAUNAREN
GUTUNA

Ez dakit, andere, zer esango zizun azpiordezkari jaunak Olivier eta Felixi buruz, ez eta zergatik duzun hainbesteko interesa bi gaizkile horietaz, mundu honetan eman dituzten urratsak odolez busti baitira beti. Probidentziak zigortu egin du bat, eta arnasaldi batzuk eman dizkio besteari, baina susmoa dut ez zaizkiola ezertarako baliatuko; nolana ere, egin bedi Jainkoaren nahia! Badakit hemengo pertsonak (eta ez nintzateke batere harrituko azpiordezkari jauna horien artekoa balitz) adiskidetasun aparteko baten eredu bailiran mintzatzen direla bi gizon horietaz; baina Jainkoaren begien aurrean, zertan geratzen da bertuterik garaiena, erruki-sentipen oroz gabeturik, Elizari eta bere ministroei zor zaien errespetuaz gabeturik, eta subiranoaren legeari men egin gabe? Olivier bere etxeko atean hil da, sakramenturik gabe; Felixi laguntzeko deitu nindutenean, bi alarguntsen etxean zegoelarik, inoiz ezin izan nion atera Olivierren izena besterik; ez erlijio-zantzurik, ez damu-seinalerik. Ez dut gogoan Felix behin ere penitentziaren epaimahaiaren aurrera aurkeztu izana.

Olivierren emaztea harroputz bat da, behin baino gehiagotan errespetuan huts egin didana; irakurtzen eta idazten dakielako aitzakian, bere seme-alabak hezi ditzakeelakoan dago; eta haiek ez dira ageri ez parrokiako eskolan ez nire dotrinan. Juzka beza berorrek, andere, horren ondoren, jite horretako pertsonak bere ontasunaren duin ote diren! Ebanjelioak txiroenganako errukia gomendatzen digu beti ere; hara bada, inork ez ditu hobeto ezagutzen benetako behartsuak, txiro eta aberatsen artzain denak baino. Andere horrek konfiantzaz ohoratu nahi banindu, nik gizajoentzako probetxu handiagoz eta zuretzako meritu handiagoz bana nitzake bere ongintzaren fruituak.

Adeitasunez, e.a...»

...-ko andereak eskertu egin zizkion azpiordezkaritari bere asmo onak, eta bere limosnak bidali zizkion Papin jaunari, honako ohar honekin.

«Eskerronez nagokio, jauna, berorren aholku zuhurrengatik. Aitortu behar diot bi gizon hauen

istorioak inarrosi egin ninduela; eta bat etorriko da berori nirekin, hain adiskidetasun berezi baten etsenplu oso aproposa zen arima on eta sentibera bat liluratzeko; baina berorrek argi egin dit, eta pentsatu dut hobe zela bertute kristau eta zoritxarrekoen alde egitea, bertute natural eta paganoen alde egitea baino. Arren erregutzen diot onar dezala bidaltzen diodan dirutzatxo hau, eta bana dezala nik baino hobeto ulertutako urrikalmenduaren arabera.

«Ohore guztiz...»

Pentsatzekoa da Olivierren alarguntsak eta Felixek ez zutela sosik jaso ...ko anderearen limosnatik. Felix hil zen; eta andre gajoa ere gosez hilko zen bere seme-alabekin, baldin eta basoan gorde ez balitz, seme zaharrenaren etxean. Han ari da lanean bere zaharrear; ahal duen bezala irauten du bere seme-alaba eta biloben ondoan.

* * *

Esanak esan, hiru ipuin-mota daude... Dezen-
te gehiago daude, esango didazue... Bego; baina
nik Homeroren, Virgilioren, Tassoren estiloko
ipuina bereizten dut batetik. Ipuin harrigarri dei-
tzen diot. Bertan exageratu egiten da natura;
balizko ageri da egia; eta kontalariak aukeratu-
tako moldeak errespetatu badu, dena molde
horren arabera paratua bada, eta harian eta
elkarrizketetan lortu badu bere obra-motak
eskatzen zuen betegintza-gradua, ez dago hari
gehiago eskatzerik. Haren poemari ekitean, lur
ezezagunean gaude, ezer ez da gertatzen bizi-
garen honetan bezala, baina dena handikiro ger-
tatzen da, gure inguruan arrunki gertatzen den
bezala. Bada gero ipuin komikoa ere, hala nola
La Fontaine, Vergier, Ariosto, Hamiltonenak
bezalakoa, zeinetan kontalariaren xedea ez
baita natura imitatzea, ez egia, ez ilusioa; irudi-
menezko espazioetara egiten du jauzi. Esaiozue
halakoari: «Izan zaitez alai, burutsu, atsegina, ori-
ginal, are bitxi; baina lilura nazazu xehetasunez;
formaren xarmak ez diezadala ikusten utz edu-
kiaren egiantzekorik eza; eta kontalariak eska-
tzen diozuna betetzen badu, eginga du dena.

Bada, azkenez, ipuin historikoa, Scarron, Cervantes, Marmontel-en obretan irakur daitekeena bezalakoa...»

— Pikutara ipuin eta ipuinlari historikoak! Halakoa ez da gezurti kaxkar eta hotz bat besterik...

— Bai, bere ofizioa menderatzen ez badu. Idazle-mota horrek engainatu egin nahi gaitu; su-bazterrean esertzen da; egia osoa eta zehatza du xede; sinets diezaioten nahi du; interesatu, inarrosi, berotu, ikaratu eta malkoak isurarazi nahi ditu; eta ondorio hori ez da lortzen hitz-etorririk eta poesiarik gabe. Baina hitz-etorria gezur-modu bat da, eta ez da poesia bezalakorik ilusioaren kontrako; batak zein besteak exageratu, larretsi, areagotu, mesfidantza eragiten dute: zer egingo du, bada, kontalari horrek zu engainatzeko? Hauxe. Zertzeladatxo z Josiko du bere kontakizuna, argumentuari hain lotuta, hain era simple eta naturalez, eta hala ere hain imajinagaitz direlarik, non zeure buruari esan beharko diozun: «Alafede, hau egia da; gauza hauek ez dira asmatzen». Honela, hitz-etorriaren eta poesiaren exageraziotik salbatuko da; naturaren

egiak ezkutatu egingo du artearen prestigioa; eta elkarren kontrako diruditen bi baldintza beteko ditu: aldi berean errealista eta poetiko izatea, egiazko eta gezurti.

Beste arte batetik hartutako adibide batek are nabariago utziko dizu esan nahi dizudana. Pintore batek buru bat margotu du miesan. Hazpegi guztiak zehatzak dira, handiak eta erregularrak; multzo beteginena eta bakanena duzu. Hari begiratzean, errespetua, mirespena, beldurikara sentitzen dut. Haren eredia naturan bilatu eta ez dut aurkitzen; buru horren aldean dena da ahul, txiki eta meharra; buru ideala da; inpresio hori dut, hala aitortzen dut. Baina artistak orban txiki bat erakusten badit buru horren bekokian, garatxo bat loki batean, ebakitxo sumaezin bat beheko ezpainean, buru hori jadanik ez da ideala, eta potret bilakatzen da; nafarreri seinale bat begi ondoan edo sudur ondoan, eta emakumeaurpegi hori jadanik ez da Venusena; nire auzokoren baten potreta da. Hala bada, esango nieke gure kontalari historikoei: ondo da, ederrak dira zuen irudiak; baina horixe falta zaie, garatxoa lokian, ebakia ezpainean, nafarreri marka sudur

ondoan, horrexek egingo lituzke egiazko; eta, nire lagun Caillot aktoreak zioen bezala: «Hauts pixka bat aire zapatetan, eta ez naiz nire kame-
rinotik irten; mendialdetik nator».

*Atque ita mentitur, sic veris falsa remis-
cet,*

*Primo ne medium, medio ne discrepet
imum.*

(Horazio, *De Art. Poet.*, 151 ber.)

Eta hain ondo etortzen da moral pixka bat poetika pixka baten ondoren! Felix eskale bat zen, non hil ez zeukana; Olivier beste eskale bat zen, non hil ez zeukana; beste hainbeste esan daiteke ikazkinaz, honen emazteaz eta ipuin honetako beste pertsonaiez ere; ondorio hau aterako duzue, nekez izango dela adiskidantza oso eta gotorrik, non hil ez daukaten gizakien artean ez bada. Gizaki bat izaten da orduan bere lagunaren fortuna osoa, eta laguna berarena. Hortik ondorioztatzen da esperientziaren egia: zorigaitzak estutu egiten ditu lokarriak eta adis-
kidetasuna; eta horrenbestez bada gairik beste

pasarte bat gehitzeko *De l'esprit* liburuaz aurki egingo den argitalpenari.

AUTOREAK ETA KRITIKOAK

Bidaiariak halako gizaki basatu batzuk aipatzen dituzte, pasatzen den edonori gezi pozoi-tuak jaurtikitzen dizkiotenak. Horra gure kritikoen irudi bizia.

Gehiegizkoa iruditzen zaizula konparazioa? Gutxienez onartuko didazu haiek badutela alde guztietatik muinoz inguratutako haran batean bizi zen gizon bakarti baten antz handi samarra. Harentzat, espazio mugatu hura unibertso osoa zen. Urrats bat eman, begia horizonte estu hari eman, eta esaten zuen: «Dena dakit; dena ikusi dut». Baina egun batez bideari lotzeko tentaldia izan zuen, eta bistatik at zituen gauza batzuetara hurbiltzeko; igo da muino baten gainera. Haren harridura, begien aurrean zabaltzen zen espazio izugarri hura ikustean. Orduan, iritzia aldatuz, esan zuen: «Ez dakit ezer; ez dut ezer ikusi».

Esan dut gure kritikoei gizon horren antza dutela; oker nago: beren etxola barruan daude

oraindik, eta ez dute uste azaren barreneko hosto-
toa direnik, ez.

Idazlearen egitekoa harropuzkeria handi
samarra da; jendeari irakasteko moduan dela
uste du. Eta kritikoaren egitekoa? Are harropuz-
keria handiagoa: jendeari irakasteko moduan
denari irakasteko moduan dela uste du.

Idazleak dio: «Jaunak, adi niri, neu bainaiz
zuen maisua». Eta kritikoak! «Niri, jaunak, niri
aditu behar didazue, zuen maisuen maisu bai-
naiz».

Bestalde, jendeak bere iritzia erakusten du.
Idazlearen lana txarra bada, barre egiten dio; bai
eta kritikoaren oharrei ere, faltsuak badira.

Ondorioz, honela dio kritikoak: «Hauek
garaiak! Hauek ohiturak! Galdu da gustu ona!». Eta horrela kontsolatzen da.

Bestalde, idazleak ikusleak, aktoreak eta
kabala salatzen ditu. Deitzen die lagunei; irakur-
tzen die bere obra antzetzu baino lehen: arra-
kastarako sortua da. Baina lagunek, itsu edo kol-
dar, ez dira ausartzen ez indarrik, ez pertsonaia-
rik, ez estilorik duen lana dela esatera; eta sinets

iezadazu, jendea ia inoiz ez da tronpatzen. Zure obrak txarra delako egiten du porrot.

— Baina *Misanthropoia* ere hala-hola ibili zen, arrakasta izan aurretik, ezta?

— Egia da. Ez da gauza txarra, ez, porrot batan ondoren, adibide hori eskura izatea! Nik ere gogoratuko dut, inoiz obraren bat estreinatu eta txistu jotzen badidate.

Kritikak desberdin jokatzeko du biziarekin eta hildakoekin. Idazle bat hil dela? Haren tasunak nabarmentzen eta akatsak gainzuzitzen jarduten du. Bizi dela? Alderantziz: akatsak nabarmendu eta tasunak ahazten ditu. Eta horrek badu bere azalpena: bizidunak zuzentzea badago; hildakoekin, ordea, ez dago zereginik.

Hala ere, obra baten zentsorerik zorrotzena idazlea bera da. Zenbat zigortzen duen bere burua! Berak bestek ez daki obraren akats ezkutukoa; ia inoiz ez da izaten kritikak seinalatzen duena. Horrek filosofo batek sarritan esan ohi zuena gogorazi dit: «Gaizki hitz egiten dutela nitaz? Nik neure burua ezagutzen dudana bezala ezagutuko banindute!...».

Antzinateko idazle eta kritikoez lehenik ikasi egiten zuten; filosofiako eskoletatik irten arte ez zioten ekiten letren bideari. Zeninen luzaro gordetzen zuten idazleak bere obra, jendeari erakutsi aurretik! Horregatik dute zuzentasun hori, aholkuei, limari eta denborari bakarrik zor zaiona.

Gu gehiegi arduratzen gara argitaratzen: baina beharbada inspirazioa eta zintzotasuna falta zaizkigu luma hartzen dugunean.

Sistema morala ustelduta badago, artea faltsua izango da.

Egia eta bertutea arte ederren lagunak dira. Idazle izan nahi duzula?, kritiko izan nahi duzula?: hasteko, zintzoa izan. Zer espero daiteke barru-barrutik sentitzeko gai ez denagandik? Eta zerk sentiaraz diezaguke, ezpada egiak eta bertuteak, naturako bi gauzarik indartsuenek, alegia?

Esaten badidate gizon bat zikoitza dela, lanak izango ditut zerbait handirik sor dezakeela sinesteko. Akats horrek kaskartu egiten du izpiritu, eta gogortu bihotza. Zorigaitz publikoak ez dira ezer zikoitzarentzat. Batzuetan, poztu ere

egiten da halakoen aurrean. Gogorra da. Nola egingo du ezer bikainik? Beti baitago bere dirukutxaren gainean kukulduta. Ez daki denboraren azkarraz eta bizitzaren laburraz ezer. Bere baitan bildurik, ez du karitaterik egiten. Nahiago du metal horiaren puska bat hurkoaren zoriona baino. Inoiz ez du ezagutu beharrean denari emateko plazera, sufritzen duenari oinazea ahaztaraztekoa, negarrez dagoenarekin negar egitekoa. Aita txarra da halakoa, seme txarra, lagun txarra, herritar txarra. Bere bizioa zuritze-ko, egiteko guztiak bere grinaren esanetara jartzten dituen sistema bat sortu du. Baldin eta errukia, liberaltasuna, ospitalitatea, aberri edo gizateriaganako maitasuna pintatzeko asmoa hartuko balu, non aurkituko lituzke koloreak? Bere artean, tasun horiek apetatxo eta erokeriak besterik ez direla sinesten baitu.

Zikoitzaren ondoren —harentzat bitarteko guztiak baitira kaxkarrak eta txikiak, eta legea hausten ere ausartuko bailitzateke dirua lortzekotan—, jeinu mugatuenerako gizakia, gaiztorako ahaltsuena, egia, ona eta ederra denerako dohain gutxien dituen, superstiziotsua da.

Superstiziotsuaren ondoren, hipokrita. Superstiziotsua begi-lausoa da; hipokrita, bihotz-ustela.

Ondo jaioa bazara, naturak izpiritu zuzena eta bihotz sentibera eman badizkizu, ihes egiozu aldi batez gizarteari; azter ezazu zeure burua. Nola emango du musika-tresna batek nota doia, desafinatuta badago? Gauzez ideia zehatzak eratu; konparatu zeure jokabidea zeure eginkizunekin; zintzotu zaitez, eta ez pentsatu lan horrek eta denbora horrek, hain ondo enplegatuarak gizonarentzat, ez diotela onik ekarriko idazleari. Zeure izaeran eta ohituretan ezartzen duzun perfekzio moraletik halako kalitate eta justiziazko ñabardura bat sortuko da, eta idatziko duzun guztiaren gainera isuriko. Bizioa deskribatu behar baduzu, ez ahaztu ordena orokorren eta zorion publiko eta partikularren zein kontrarioa den; hartara, irmo deskribatuko duzu. Bertutea deskribatu behar baduzu, nola lortuko duzu besteek maita dezaten, zeu bertutetsu ez bazara?

Gizonen artera itzultzean, adi egon ondo hitz egiten dutenei; eta maiz hitz egin zeure buruarekin.

Adiskide, ezagutzen duzu Aristo; hartaz kontatu nahi dizut ondoren doana. Berrogei urte zituen orduan. Bete-betean emana zen filosofia ikastera. Filosofo deitzen zioten, anbiziorik ez zuelako, zuzena zelako, eta bekaizgoak inoiz ez zizkiolako aldatu ez bere gozotasuna, ez bere bakea. Bestalde, plegu zuhurrekoa zen; ohitura zuzenetakoa; arrazoiketa zorrotzak eta sinpleak egiten zituen. Filosofo zahar baten soingainekoa besterik ez zitzaion falta, pobrea zelako, eta pozik zegoelako bere pobretasunean.

Egun batez, ordu batzuez literaturaz edo moralaz solastatzea pentsatu zuen lagunekin, ez baitzuen gogoko arazo publikoez mintzatzea. Baina lagunak ez ziren etorri, eta bakarrik paseatzea erabaki zuen.

Gutxitan jo ohi zuen gizonen biltoki diren lekuetara. Gogokoago zituen leku apartatuak. Ametsetan bezala ibiltzen zen oinez, esanez:

«Berrogei urte ditut. Asko ikasia naiz; filosofo deitzen didate. Hala ere, norbait etorri eta esan-

go balit: "Aristo, zer dira egiazkoa, ona eta ederra?", erantzuna pronto izango al nuke? Ez. "Baina nola, Aristo, ez al dakizu zertzuk diren egiazkoa, ona eta ederra? Eta filosofo deitzen dizute zuri!"».

Ezagutzarik gabe zabaltzen diren eta lotsarik gabe onartzen diren gorespenen hutsalaz gogoeta egin ondoren, gure jokabidearen eta gure judizioen ideia oinarrizko horien sorburuaren bila hasi zen; honela egiten zuen bere artean:

«Beharbada ez dira izango giza espezie osoan bi norbanako elkarren antz arin bat ere dutenak. Antolakuntza orokorra, sentimenak, kanpoko itxura, erraiak, oso desberdinak dira. Zuntzak, giharrak, solidoak, jariakinak, oso desberdinak dira. Izpiritua, irudimena, oroimena, ideiak, egiak, aurreiritziak, elikagaiak, ariketak, ezagupenak, egoerak, hezkuntza, gustuak, fortuna, talentuak, oso desberdinak dira. Objektuak, klimak, ohiturak, legeak, azturak, gobernuak, erlijioak, oso desberdinak dira. Beraz, nola liteke bi gizonen gustu berbera edo ideia berberak izatea egiazko, on eta eder denaz? Bizitzaren askotarikoa eta gertaeren anitza aski lirateke,

besterik gabe, era guztietako iritziak justifikatzenko.

«Eta hori ez da dena. Gizon batengan dena da gorabehera etengabea, dela alderdi fisikoa, dela morala kontuan hartzen badugu: penadator plazeraren ondotik, plazera penaren ondotik; osasuna gaixotasunari darraio, eta gaixotasuna osasunari. Oroimenari esker gara bat bera besteentzat eta geure buruarentzat. Nik dudan adinarekin, baliteke gorputzean ez izatea jaiotzean nuen molekula bakar bat ere. Ez dakit nire biziak zer muga duen; baina gorputza lurrari itzultzeko unea etor dadinean, seguruenik ez du izango orain duen molekuletarik bakar bat ere. Arima ere desberdina da bizitzako aldietan zehar. Haurretan, zizaka egiten nuen; orain, arrazoitzen dudalakoan nago, baina, arrazoi eta guzti, denbora aurrera doa eta zizaka hasiko naiz berriz. Hori da nire izatea eta denena. Beraz, nola liteke gutako bakar batek ere bere bizitza osoan gustu berbera gordetzea, beti iritzi berak defendatzea egia, ona eta eder denaz? Gizakien tristurak eta gaiztakeriak ekarritako iraultzak aski lirateke haien iritziak aldatzeko.

«Beraz, kondenatuta al dago gizona ez besteekin ez bere buruarekin ados jartzera, ezagutzea axola zaizkion gauza bakarrez: egiaz, ontasunaz, edertasunaz? Gauza horiek lokalak, behin-behinekoak eta arbitrarioak al dira, zentzurik gabeko hutsak? Ez al dago ezer den bezalakoa denik? Gauza bat egiazko, on eta eder al da hala dirudienean? Gustuaz egin ditzakegun eztabaida guztiak proposizio honen bidez ebatz litezke: gu, zu eta ni, izaki desberdinak gara; eta ni neu ere, ez al naiz desberdina unez une?»

Hemen Aristo gelditu egin zen; gero aurrera segitu zuen: «Egia da gure eztabaidak ez liratekeela amaituko harik eta nork bere burua hala eredutzat nola epailetzat hartu arte. Zenbat gizon, hainbat neurri egon behar dute eta gizon batek bizitzan, zenbat aldi nabarmenki desberdin dituen, hainbat modulu desberdin izango ditu.

«Aski zait hori, nik uste, nire kanpoan neurri bat, modulu bat bilatzeko beharra sentitzeko. Lortzen ez dudan bitartean, nire judizio gehienak faltsuak izango dira, eta denak badaezpadakoak.

«Baina, non aurkitu bila nabilen eta falta zaidan neurri aldakaitz hori?... Nik neuk eratuko dudan gizon ideal batengan, zeini aurkeztuko baitizkiot epaitu beharreko gauzak, eta zeini atxikiko bainatzaio beraren oihartzun leial besterik ez izan arte?... Baina gizon hori nire sorkari litzateke... Zer axola dio osagai iraunkorretatik sortzen badut...! Baina, osagai iraunkor horiek, non daude?... Naturan?... Bego, baina nola gardainatu?... Gauza zaila da, ezinezkoa ote?... Eredu betegina eratzeaz etsi dezadanean, barkatu egingo al zait saiatzea?... Ez... Sala gaitzen, beraz... Baina, zer konpromiso hartu dut, kontuan izanik edertasun-ereduak, antzinako eskultoreek beren obra guztietan izan zuten eredu hark, hainbeste behaketa, azterketa eta neke ekarri ziela?... Halaz guztiz ere, egin egin behar, edota, Aristo filosofoa deitzen dizutela entzutean, lotsagorritu».

Puntu honetan, Aristok bigarren pausaldia egin zuen, lehena baino luzexeagoa, eta honela jarraitu zuen:

Lehen begiratuan, ohartzen naiz bila nabilen gizaki ideala neuk osatutako izakia dela, eta

eskultoreek, gizaki horren proportzio ederrenak zeintzuk diren zehazterakoan, neure ereduaren parte bat gauzatu dutela... Bai. Har dezagun estatua bat, eta eman diezaiogun bizia... Eman diezazkiogun gizaki batek izan ditzakeen organorik beteginenak. Jantzi dezagun hilkor batek izan ditzakeen tasun guztiez, eta gauzatua dugu gure eredu ideala... Ezbairik gabe... Baina azer azterketa!, azer lan! Zenbat ezagupen fisiko, natural eta moral bildu behar den! Ez dut ezagutzen inongo zientziarik, inongo arterik, zeinetan ez dudan neure burua sakonki trebatu beharko. Horrela eta ez bestela izango dut egia osoaz, ontasun eta edertasun osoaz hornitutako eredu ideala... jakina, ezingo dut eratu eredu orokor ideal hori baldin eta jainkoek ez badidate beren adimena ematen, eta eternitatea agintzen ez badidate: hona hemen berriro ere garbitu nahi nituen zalantzetan murgilduta».

Aristo, triste eta pentsati, berriro gelditu zen puntu horretan.

«Baina, zergatik —jarraitu zuen isilune baten ondorenez dut nik ere eskultoreek bezala egiten? Haiek beren premietara egokitzen den ere-

dua osatu dute; nik neure premiak ditut... Literaturagileak eredu ideal bat osa dezala literatura-gile beteginenaz, eta gizon horren ahotik juzka ditzala besteen eta bere emaitzak. Filosofoak ere berdin egin dezala... Ereduari on eta eder iruditzen zaion oro, hala izango da. Hori du bere erabakien mekanismoa... Eredu ideala hainbat preziagarri eta ozarrago izango da zenbat eta haren ezagupenak zabalagoak izan... Ez da inor, ezin inor izan, dena neurri berean egiazko, on eta eder dela juzkatzen duenik. Ez: ameskeria hutsa da uste izatea gustu oneko gizakia betegintzarre ororen eredu orokor ideala beregan duen huraxe dela.

«Baina, nola erabiliko dut nire filosofo-izaerari —hala deitu nahi baitzait— dagokion eredu ideal hori, halakorik izaten dudanean? Pintore eta eskulturagileek erabili duten bezala. Aldatu egingo dut zirkunstantzien arabera. Bigarren gogoeta honi ekingo diot orain.

«Ikasketak konkortu egiten du literaturagileak. Ariketak martzialago egiten du soldadua ibilera. Zamak garraiatzeko ohiturak giltzurrunak makurrarazten dizkio morroiari. Emakume

gizenak atzeratu egiten du burua. Konkordunak konkorrrik gabeak ez bezala mugitzen ditu besokak. Behaketa horiek, behin eta berriz mugarik gabe eginda, hezi egiten dute eskulturagilea, erakutsi egiten diote eredu ideala bere gogara aldatzen, sendotzen, ahultzen, desitxuratzen eta eraldatzen. Grina, ohitura, izaera, erabilpenen azterketak erakutsiko dio pintoreari ereduak aldatzen, eta ez kontuan hartzen gizona besterik gabe, baizik eta gizon ona edo gaiztoa, pazientziatsua edo suminkorra.

«Honela, antzirudi bakar batetik irudikapenen aniztasun azkengabea sortuko da eszenarako edo mihiserako. Poeta bat al da? Konposatzen duen poeta al da? Satira bat ala himno bat konposatzen du? Satira bat konposatuz gero, haserretu egin behar du: begiak ñarroitu, burua sorbalda artean sartu, ahoa itxi, hortz-haginak estutu, arnasari eutsi. Himnoa dela? Poztu egin behar du: burua goian, ahoa erdi irekita, bista zeruan galdurik, goi-hatsak eta estasiak hartua delako itxura izan, arnasa bizkor eta estu. Arrakasta lortu ondoren, ez al dute izango itxura desberdinik bi gizakion alaitasunek?». »

Elkarrizketa hori bere buruarekin izan ondoren, Aristok pentsatu zuen artean asko zuela ikasteko. Etxera itzuli zen. Hamabost urtez entzerratu zen. Historiara, filosofiara, moralera, zientzia eta arteetara eman zen; eta, berrogeita hamar urtean, gizon zintzoa, ikasia, gustu onekoa izan zen, idazle handia eta kritiko bikaina.

LA CARLIEREKO ANDEREA

— Itzuliko al gara?

— Oraindik goiz da.

— Ikusten al dituzu hodeiok?

— Ez izan beldurrik; berez desagertuko dira, eta haizexka leunenaren laguntzarik gabe.

— Zuk uste?

— Maiz ikusi dut halakorik udan, eguraldi beroa denean. Atmosferaren behealdeak, euriak bere hezetasunaz gabetuta, zerua ezkututzen dizun ganga iluna eratzen duen lurrin lodiaren parte bat hartuko du. Lurrin hori berdintsu banatuko da aire guztian zehar, eta banaketa edo konbinazio zehatz horregatik, nahi duzun bezala deitu, atmosfera garden eta argi bihurtuko da. Laborategietan egin ohi den lan berbera da, gure buruen gaintetik handizka gertatzen dena. Ordu batzuk hartu, urdin-uneak hodei mehetuak zultzen hasiko dira; hodeiak are gehiago mehetuko dira; urdin-uneak ugaritu eta zabalduko; laster ez duzu jakingo zer geratu zaion beldurtzen zintuen krespa beltzari, eta harrituta eta atseginez

egongo zara airearen aratzagatik, zeruaren garbiagatik eta egunaren ederragatik.

— Egia da hori; izan ere, zu hizketan ari zine-la, ni begira nengoen, eta bazirudien fenomeno hori zure esanetara gertatzen ari zela.

— Fenomeno hori aireak ura disolbatzea bezalako zerbait besterik ez da.

— Ur hotzez betetzen den edalontziaren kanpoaldea makesten duen lurrina bezala, prezipitazio modukoa besterik ez da.

— Eta atmosferan igeri dabiltzan edo zintzilik dauden baloi eskerga horiek ez dira soberan dagoen ura besterik, aire saturatuak disolbatu ezin duen ura.

— Kafe-kikara baten hondarrean geratzen diren azukre-puskak bezala geratzen dira han.

— Oso ondo.

— Beraz, agintzen didazu, itzuleran...

— Inoiz ikusi ez bezalako ganga izartua izango dugula.

— Paseatzen segitzen dugunez, esango al zenidake, hemen ibili ohi diren guztiak ezagunak dituzunez, nor den hor eserita dagoen pertsonaia ihar, luze, malenkoniatsu hori, hitzik egin ez

duena, eta beste guztiak sakabanatu direnean saloian bakarrik utzi dutena?

— Oinazea benetan errespetatzen diodan gizon bat da.

— Eta nola du izena?

— Desroches zalduna.

— Zer Desroches, aita zikoitza hiltzean izugarrizko fortunaren jabe bihurturik, ospetsu bihurtu zena bere lazokeriagatik, bere limurkeriagatik eta hainbeste egoera aldatu dituelako?

— Horixe bera.

— Era guztietako aldaketak izan dituen ero hori, hurrenez hurren iduneko zuriz, jauregiko jantziz eta uniformeaz ikusi izan dutena?

— Bai, ero horixe.

— Nola aldatu den!

— Horren bizitza gertaera harrigarri osatutako ehuna da. Patuaren apeten eta gizakien juzku arinen biktima zorigaitzekoenetako bat da bera. Eliza utzi eta magistraturan sartu zenean, familiak mila espantu egin zituen; eta jende tentel guztia, beti gurasoen alde jarri behar seme-alaben kontra, denak batera hasi ziren gaizki-esaka.

— Istilu gorriak sortu ziren bada tribunaletik erretiratu eta armadara sartu zenean ere.

— Hala ere, zer egin zuen? Kemena erakutsi. Gu denok barro egongo ginateke halakorik egin-da, baina berari izan den pertsonarik eroenaren fama jarri zion; eta harritu egiten zara jendearen kalaka neurrigabeak gogaitzen banau, pazientzia galarazten badit, min ematen badit!

— Alafede, aitortzen dizut nik ere mundu guz-tiak bezala juzkatu dudala Desroches.

— Horrelaxe izaten da: ahoz aho, bata bes-tearen oihartzun irrigarri bihurtuta, gizon adei-tsua gizon kaxkar itzultzen dugu, gizon argia ergel, zintzoa gaizto, ausarta burugabe, eta alderantziz. Ez, ez du merezi berriketari muturlu-ze horien ez onespena, ez gaitzespena kontuan hartzea, haren bizitzako jokabideren bat dela eta. Adi, Jainkoarren!, eta hil zaitetz lotsaz. Des-roches oso gazterik sartu zen kontseilari parla-mentuan; aldeko zirkunstantziek Ganbara Nagu-sira eraman zuten bizkor; Tournelleko Ganbara-koa ere izan zen tokatu zitzaionean, eta, beraz, epaileetako bat afera kriminal batean. Bere ondorioen arabera, gaizkilea azken supliziora

kondenatu zuten. Exekuzioaren egunean, ohikoa da epaia erabaki dutenak udaletxean biltzea, zorigaitzekoaren azken asmoak jasotzeko, hala-korik balitz; abagune hartan baziren. Negua zen. Desroches eta kidea sutondoan eserita zeuden gajoa etorria zela jakinarazi zietenean. Gizon hura, torturak lokatua, anda batzuetan etzanda ekarri zuten. Sartutakoan, jaiki, zerura begira jarri, eta oihu egin zuen: «Jainko handia! Zure epaia zuzena da». Horra hura andetan, Desrochesen oinetara. «Zuk kondenatu al nauzu, jauna?» esaten dio aurpegira gogor. «Egozten didaten krimenaren errudun naiz, bai, banaiz, aitortzen dut, baina zuk ez dakizu ezer». Gero, prozesu osoari berrekinez, argi baino argiago frogatu zuen ez zegoela ez sendotasunik frogetan, ez justiziarik epaian. Desroches, ikarak guztiz hartuta, jaiki, urratu bere epaile-jantziak, eta betiko egin zion uko gizakien biziaren gainean erabakitzeko betekizun arriskutsuari. Eta horra nori deitzen dioten ero! Bere burua ezagutzen duen gizon bati, apaiz-jantziak ohitura gaiztoez orbantzeko edo egunen batean errugabeen odolaz kutsatzeko beldur denari.

- Gauza horiek ez dira jakiten eta.
- Ezjakinean, isildu egin behar da.
- Baina isiltzeko, mesfidatu beharra dago.
- Eta zer eragozpen dago, bada, mesfidatze-

ko?

— Estimutzen diren hogeit hamar pertsonari sinetsi ez, eta ezagutzen ez den norbaiten alde jarri beharra.

— Aizu, jauna, kontua ongia segurtatzea denean, nik ez dizut horrenbesteko bermerik eskatzen; baina gaizkia!... Utz dezagun hori, kontakizuna eten didazu eta umore txarrez jarri nauzu. Hala ere, zerbaitetan aritu beharra zegoen. Armadako konpainia bat erosi eta beraren buru jarri zen.

— Alegia, hurkoak kondenatzeko lanbidea utzi eta inolako prozesurik gabe hiltzekoa hartu zuen.

— Ez dut ulertzen nola egin daitekeen bromarik horrelako kasu batean.

— Zer nahi duzu? Zu tristeza zara, eta ni alaia.

— Historiaren segida jakin beharra dago jendearen kalakak zer balio duen ikusteko.

— Jakingo nuke, zuk hala nahi bazenu.

— Luze joko du.

— Hala hobe.

— Desrochesek 1745eko kanpaina egin zuen eta ondo aritu zen. Gerraren arriskuei ihes egin ondoren, berrehun mila fusilkadari alegia, zaldi urduri batengatik hanka hautsi zuen, neguko kuartela jarri nahi zuen landetxe batetik hamabi edo hamabost legoara; eta Jainkoak daki nola atondu zuen gure jende atseginak istripu hori.

— Izan ere, pertsonaia batzuek ohitura bihurtu dute barre egitea, eta ez dira ezertaz kexatzen.

— Hanka hautsitako gizon bat oso gauza atsegina da, noski! Ondo da, jaun barregile lotsagabeok, egizue barre, baina jakizue hobe zukeela Desrochesek kanoi-bala batek eraman izan balu, edo, sabela baioneta-kolpe batek zulatuta, gudu-zelaian geratu izan balitz. Istripu hura herrixka kaxkar batean gertatu zitzaion, presbiterioa edo gaztelua beste aterpe itxurazkorik ez zegoen lekuan. Gaztelura eraman zuten; La Carlìèreko anderea zeritzan alargun gazte batena zen, inguru hauetako anderearena.

— Nork ez du La Carlièreko anderearen berri? Nork ez du senar zahar jeloskor batekiko zituen kunplimentu mugagabeen berri, guraso dirugoseek halakoari eskaini baitzioten alaba hamalau urteko adinean?

— Loturarik serioena hartu ohi den adin horretan, orduantxe apaintzen baitira musugorriak hautsez, eta orduantxe izaten kiribil ederrak. La Carlièreko andereak jokabide begiratu eta zintzoena izan zuen bere lehen senarrarekin.

— Sinesten dizut, esaten didazunez gero.

— Imajina daitekeen arreta guztiarekin hartu eta tratatu zuen Desroches zalduna. Bere aferak zituen zain hirian; baina aferak eta udazken gaizto bateko euri etengabeak eta guzti, inguru haieztatik doan Marne ibaiaren urak hazi eta etxetik batelean izan ezik ez irteteko zorian jartzen zuelarik, luzatu egin zuen bere lurretako egonaldia Desroches erabat sendatu arte. Horra sendatua. Horra La Carlièreko anderearen ondoan, Parisera bidean zalgurdi batean, eta zalduna esker onez eta sentimendu eztiago batez bere ostalari gazte, aberats eta ederrari lotuta.

— Egia da izaki zerutiarra zela; inoiz ez zen ikuskizunetan agertzen denak aho zabalik utzi gabe.

— Han ikusi al zenuen?

— Hantxe.

— Zenbait urteko intimitateak iraun zuen bitartean, zaldun maiteminduak, ez baitzen arduragabea La Carlièreko anderearekiko, askotan proposatua zion ezkontzea, baina lehen senarraren tiraniapean jasan zituen nekeen oroitzapen zahartu gabeek, eta areago zaldunak hainbat eta hainbat amodio-menturaren bidez irabazia zuen kaskarin-ospeak, beldurtu egiten zuten La Carlièreko anderea, eta ez zuen sinesten halako gizonak alda daitezkeenik. Garai hartan auzitan sartua zen senarraren oinordekoekin.

— Ez al zen esamesarik izan auzi hori zela eta?

— Asko, eta kolore guztietakoak. Zuri uzten dizut pentsatzea ea Desroches, artean lagun asko baitzituen Magistraturan, lo geratu zen La Carlièreko anderearen interesei zegokienean.

— Eta esker oneko zela pentsatuko bagenu?

— Hura beti zegoen epaileen atean.

— Barregarria zera da, haustura guztiz sendatu eta gero ere, inoiz ez zituela bisitatzen hankan bortzegi bat jarri gabe: uste zuen bere eskaerak, bortzegi haren laguntzaz, indar gehiago zuela; egia da batzuetan hanka batean eta besteetan bestean jartzen zuela bortzegi hori, eta hainbat aldiz aipatu zela kontu hori.

— Eta izen bereko senide batekin ez nahasteko, Desroches Bortzegi deitzen ziotela. Hala ere, zuzenbide onaren eta zaldunaren bortzegi patetikoaren laguntzaz, La Carlièrereko andereak irabazi egin zuen auzi hura.

— Eta Desroches anderea bihurtu zen tituluz.

— Zein bizkor zoazen! Ez dituzu maite xehe-tasun arruntak, eta ez dizkizut kontatuko. Ados zeuden, eta iaia ezkontzeko zirelarik, La Carlièrereko anderea, oturuntza dotore baten ondoren, bi familiak eta zenbait lagunak osatutako jendeztaren aurrean, itxura itzaltsuz eta handikiro hitz eginez, honela zuzendu zitzaion zaldunari: «Desroches jauna, entzun, arren. Gaur egun gu libre gara bata eta bestea, bihar ez gara izango, eta ni zure zorionaren edo zoritxarraren arduradun

bihurtuko naiz; baita zu ere nirearen. Gogoeta franko egina naiz horretaz; arren, zeuk ere seriooki pentsa ezazu. Egun arte menderatu zaituen aldakortasunerako joera hori sentitzen baduzu, ni aski ez banintz zure desirak erabat eta osotara betetzeko, ez zeure burua behartu, zuregatik eta neuregatik eskatzen dizut. Kontu egizu ezen, zenbat eta gutxiago etsi neure burua baztergarri, hainbat eta biziago sentituko dudala irain bat. Asko ustekoa naiz oso. Ez dakit gorrotatzen, baina inork ez daki mesprezitzen nik baino hobeto, eta inoiz ez zait pasatzen mesprezioa. Bihar, aldarearen oinean, nirea, eta nirea bakarrik, izango zarela zin egingo duzu. Mia ezazu, galdegiozu zeure bihotzari oraindik garaia denean; kontu egizu nire bizia dagoela jokoan. Jauna, zauribera naiz, eta nire arimako zauria ez da ixten, odola dariola egoten da beti. Ez naiz kexatuko, zeren eta kexuak, lehenik nekagarria delarik, azkenean mingostu egiten baitu gaitza, eta errukiak desohoratu egiten baitu sentimendu hori eragiten duena bera. Nire oinazeari atea itxi eta hil egingo naiz. Zaldun, zure esku uztera noa neure pertsona eta ondasunak, neure boron-

date eta fantasiak; zu izango zara mundu osoa niretzat, baina nik ere mundu osoa izan behar dut zuretzat, ez naiz laketuko gutxiagoz. Uste dut une honetan bakarra naizela zuretzat, eta zu ere halaxe zara niretzat; baina oso litekeena da zuk andre atseginago bat aurkitzea, eta nik hala irudituko zaidan gizonen bat. Merezimendu handiagoek, benetako edo ustezkoek, aldakortasuna justifikatuko balute, ez legoke ohitura onik. Nik ohitura onak ditut, izan nahi ditut, eta zuk ere izatea nahi dut. Imajina daitezkeen sakrifizio guztiak eginez neureganatu nahi zaitut, eta osorik neureganatu ere. Horra nire eskubideak, horra nire tituluak, ez ditut inoiz inola ere ukatuko. Dena egingo dut, ez bakarrik zu aldakorra izan ez zaitezen, baita gizon zentzuzkoen juzkura, zeure kontzientziaren juzkura, esker txarrekoetan azkena izan zaitezen. Onartzen dut zuk gauza bera aurpegiratzea, baldin eta ez badiet zure eginahalei, zure arretari, zure samurtasunari, zuk espero duzun baino hobeto erantzuten. Ikasia dut zertarako gauza naizen, emakume baten egitekoak ez errazten ez atsegin bihurtzen zituen senar baten ondoan. Ikus ezazu zeuk zeri

izan behar diozun beldur. Hitz egidazu, zaldun, hitz egidazu garbi; edo zure emazte bihurtuko naiz, edo zure lagun izaten jarraituko dut; auke-
ra ez da ankerra. Lagun, lagun gozo hori, arren eskatzen dizut, ez nazazu jar nire haurren aitari gorroto izateko, ihes egiteko tenorean, eta, agian, desesperantzaren gehiegiaz, haien laztan errugabeak errefusatzeko tenorean; nire bizitza osoan, maitasun berrituz, haiengan aurkitu ahal zaitzadala eta haien ama izateko ditxa izan dezadala. Emadazu emakume zuzen batek gizon adeitsu bati eska diezaiokeen konfiantza-seinalerik handiena; errefusa nazazu, errefusa nazazu, neure buruari prezio handiegia jartzen diodala uste baduzu. Iraindua sentitu gabe, lepoa inguratuko dizut besoez, eta gatibatu dituzun emakumeen amodioak eta eman dizkiezun maitakeriak sekula ez zizuten ekarriko zeure lañotasunetik eta nire esker onetik lortua dukezun musua bezain egiazkorik».

— Uste dut aditu dudala, aspaldi samar, hitzaldi horren parodia oso komiko bat.

— La Carlièreko anderearen lagun onen baten ahotik, beharbada?

— Alafede, oraintxe gogoratu naiz, asmatu duzu.

— Eta hori ez ote litzateke aski gizon bat basoan gorde dadin, sakratutzat ezer ez duen jendaila guztiagandik urrun? Ni hara joango naiz, azkenean hala izango da, ez dago gauza ziurragorik, joan egingo naiz. Bildutakoak, hasieran irribarre egiten bazuten ere, malko-jario zeuden azkenean. Desroches La Carlièreko anderearen belaunetara makurtu zen, protesta zintzo eta samurretan luzatu zen, ez zuen isildu iraganeko jokabidea larriagotu edo zuritu zezakeen ezer, ezagutu eta utziak zituen beste emakume batzuekin konparatu zuen La Carlièreko anderea alderatze bidezko eta lausenguzko hartatik emakumea konbentzitzeko, bere burua konbentzitzeko motiboak atera zituen, modako zegoen joera baten kontra, gaztaroko sukarraren kontra, ohitura orokorren —ezen ez bere ohituren— bizioaren kontra; ez zuen esan pentsatzen ez zuenik eta betetzeko asmoa ez zuen ezer. La Carlièreko anderea begira zegokion, adi, hitzetan, mugimenduetan barrendu nahiz, eta dena bere alde interpretatzen zuen.

— Zergatik ez, egia bazen?

— Emakumeak utzia zion esku bat, eta berak muin ematen zion, bihotzaren kontra estutzen zuen, berriz ere muin eman eta malkoz bustitzen zion. Mundu guztia zen gizonaren samurtasunaren partaide; emakume guztiek sentitzen zuten La Carlièrereko andereak bezala, gizon guztiek zaldunak bezala.

— Zintzoa denaren eragina da hori, bildutako jendeak pentsamendu eta arima bakar bat besterik ez izatea. Nola estimatzen den, nola maitatzen den une horietan! Adibidez, zein ederra den gizateria antzerkian! Zergatik hain bizkor bereizi behar hau! Gizonak hain dira on eta zoriontsu zintzoak haien asmoak biltzen dituenean, elkartzen dituenean, bat egiten dituenean!

— Bat egiten gintuen zorion hartaz gozatzen ari ginelarik, La Carlièrereko andereak, arima sutuaren mugimendu batek eramana, jaiki eta hauxe esan zion Desrochesi: «Zaldun, oraindik ez dizut sinesten, baina laster sinetsiko dizut».

— Kondesatxoak ezin hobeto antzezten zuen bere lehengusina ederraren bozkarioa..

— Askoz egokiago jokatuko du hark, sentitu baino. «Aldare aurrean zin egindakoe...». Barre egiten duzu?

— Alafede, barkamena eskatzen dizut, baina oraindik ere ikusten ari naiz kondesatxoak oin puntetan jarrita; eta bere tonu enfatikoak aditzen diot.

— Tira, gaiztoa zara, doilorra, beste jende hori guztia bezala, eta isildu egingo naiz.

— Hitz ematen dizut ez dudala barre egingo.

— Erne ibili.

— Ondo da, aldare aurrean zin egindakoe...

— «...hainbeste zin-hauste izan dituzte ondotik, non ez naizen batere fio bihar egingo dugun promes larriaz. Jainkoaren presentzia ez zaigu gure hurkoen juzkua bezain beldurgarri. Desroches jauna, hurbil zaitez, hona nire eskua; emadazu zurea, eta zin egidazu betiko leial eta samur izango zatzaizkidala. Kontu hartu, inguratzeko gaituzuen gizonok: inoiz gerta baledi zuk niri kexu izateko motibo zilegizkorik ematea, utziezadazu epaimahai honen aurrean sala zaitzadan, eta beraren suminera libra zaitzadan; onar ezazu nire esanetara bil daitezen, eta traidore,

esker txarreko, gaizto, ustel, kaxkar dei diezazuten. Nire eta zure lagunak dira: onar ezazu nik zuegal zaitzadanean, zu horietako bakar bat ere gabe geratzea. Zuek, lagunok, zin egidazue bakarrik utziko duzuela”. Berehala, oihu nahasiek durundi egin zuten saloian: «Hitz ematen dut», «onartzen dut», «onesten dut», «zin egiten dugu». Eta harrabots delizioso haren erdian, zaldunak, La Carlièrereko anderea besoez inguratuta baitzeukan, bekokian ematen zion musu, begietan, masailetan. «Baina, zaldun!».

— «Baina andere, zeremonia burutua da, zure senarra nauzu, nire emaztea zaitut».

— Oihanetan hala izango da, noski; hemen baitezpadako urrats bat falta da. Hobeto itxaroteko, har ezazu nire potreta, egizu berarekin nahi duzuna. Ez al duzu zeurea enkargatu? Baldin baduzu, emadazu”.

«Desrochesek bere potreta aurkeztu zion La Carlièrereko andereari; hark eskuturrekoan ipini, eta handik aurrera egun hartan Desroches anderea dei zezaten eskatu zuen.

— Irrikatan nago jakiteko nola amaituko den hori guztia.

— Pazientzia pixka bat; luze joko duela agindu dizut, eta hitza bete behar dut. Baina... egia da: zure bidaia handian gertatu zen hura, eta erresumatik kanpo zinen.

«Bi urtetan, bi urte osotan, Desroches eta emaztea senar-emazterik elkartuenak, zoriontsuenak izan ziren. Ustea zen Desroches benetan zuzendua zela, eta hala zen, izan. Parrandako lagunek, aurreko eszenaren berri izan eta hartaz bromak eginak zirelarik, zioten apaizak zekarrela benetan zorigaitza, eta La Carlièreko andereak aurkitua zuela, bi mila urteren buruan, sakramentuaren madarikazioa saihesteko sekretua. Desrochesek haurra izan zuen La Carlièreko andereagandik; nik Desroches anderea deituko diot beste izenen bat erabiltzea komeni arte. Andereak berak eman nahi izan zion bularra. Denboraldi luze eta arriskutsua izan zen hori temperamentu sutsu eta halako arauetara gutxi egin batentzat. Desroches anderea bere zereginetan ari zelarik...

— Senarra gizartera irten zen, eta egun batez bere bidean emakume liluratzaille horietako bat aurkitzeko zoritxarra izan zuen, maltzurra, bes-

teengan berengan ezagutzen ez duten irizkidegoa ikusteaz sekretuki suminduta dauden horietako bat; asmo eta kontsolamendu bakartzat besteak berek duten miserian murgilaraztea duten emakume horietako bat.

— Hori zure historia da, ez harena. Desroches, ezagutzen baitzuen bere burua, ezagutzen baitzuen emaztea, errespetatzen baitzuen, beldur baitzion...

— la gauza bera da.

— Haren ondoan pasatzen zituen egunak; haurra —erotuta baitzegoen haurrarekin— amak bezainbat edukitzen zuen besoetan; amaren egiteko zintzo baina nekosoa ematzeko, zenbait lagunekin batera, etxeko dibertsio batzuekin entretenitzen zuen.

— Hori bai dela gauza ederra.

— Bai horixe. Lagun horietako bat gobernua-
rentzat lan egin zen. Ministerioak dirutza handia zor zion, ia bere fortuna osoa, eta alferrik eskatzen zuen itzul ziezaion. Desrochesi jakinaz zion. Hau gogoratu zen behinola oso ondo egona zela emakume batekin, eta emakume hark bazuela ahala bere ezagunen bidez afera

hari amaia emateko. Isildu egin zen, baina biharamunean emakume hura ikusi eta hitz egin zion. Emakumea poztu egin zen gizon dotore hura aurkitzean, eta pozik zerbitzatu zuen, samurkiro maitatua eta asmo anbiziotsuagoetara sakrifikatua baitzuen. Lehen elkarrizketa hari beste asko jarraitu zitzaizkion. Emakume hura xarmanta zen; okerrak egiten zituen, eta azalpenak emateko zuen era ez zen batere dudazkoa. Desroches zer egin jakin gabe egon zen denboraldi batean.

— Alafede, ez dakit zergatik.

— Baina, aldez gustuz, beste egitekorik ezaz edo ahuleziaz, aldez beldurrez, barne-zimiko txatxu batek...

— Emazteari axolako ez zitzaion dibertsio bategatik...

— Lagunaren babesleari bizitasuna geldotuko ez ote zion, eta negoziatioaren arrakasta etengo ez ote zuen, ahaztu egin zen une batez Desroches andereaz, eta azpijoko hartan lotu zen, eta gutunketa beharrezko eta jarraituan, bere sopikunak baitzuen interesik handiena isilgordean edukitzeko. Gutxitan ikusten zuten

elkar, baina sarritan idazten zioten elkarri. Ehun aldiz esanda nago maitaleei: «Ez idatzi ezer, gutunek galduko zaituztete: goiz edo berandu, zoriak bere norabidetik saihestuko du gutunen bat». Zoriak konbinatu egiten ditu kasu posible guztiak, eta ez zaio astirik falta aukera zorigaiztokoa sorrarazteko.

— Inork ez dizu sinetsi?

— Eta denak galdu dira, bai eta Desroches ere, bere aurretik izan diren beste ehun mila bezala, eta ondotik izango diren beste ehun mila bezala. Hark, gainetik eta alboetatik altzairuzko xaflatxoetan bildutako kutxatila batean gordetzen zituen bere gutunak. Hirian eta landan, kutxatila idazmahai batean egoten zen, giltzapean; bidaietan, berriz, Desrochesen kutxetako batean edo zalgurdiaren gainean joaten zen; kasu honetan gurdi-gainean zihoan. Abiatu dira, iritsi dira. Oina lurrean ezartzean, Desrochesek zerbitzari bati eman dio kutxatila bere gelara eraman dezan; hara joateko emaztearen gelatik pasatu behar, ordea, derrigor. Han, hautsi da heldulekua, erori da kutxatila, jaregin zaio tapa, eta horra gutun pila bat Desroches anderearen

oinetan barreiatuta. Jasotzen ditu batzuk, eta senarraren gaiztakeriaz sinetsita geratzen da. Inoiz ez zuen gogoratu abagune hura hotzikararik gabe. Esaten zidan izerdi hotzak ihes egin ziola gorputzaren alde guztietatik, eta iruditu zitzaiola burdinazko atzapar batzuek bihotza ebaki eta erraietatik tira egiten ziotela. Zer egin? Gogoeta: geratzen zitzaizkion arrazoi eta indarrak bildu zituen: gutunen artean, esanguratsuek aukeratu zituen; berriz ondo jarri kutxatilaren hondoa, eta agindu zion zerbitzariari jaunen gelan ipintzeko, gertatu berria aipatu gabe, bertan behera kaleratua izan nahi ez bazuen. Emakumeak agindua zion Desrochesi inoiz ez ziola emango kexurik, eta hitzari eutsi zion. Hala ere, tristurak hartu zuen: batzuetan negar egiten zuen; etxean edo paseatzen, bakarrik nahi zuen; otorduak bere gelan izaten zituen; isilik egoten zen denbora guztian; nahi ezta egindako hasperen batzuek baizik ez zioten ihes egiten. Desroches samindu baina lasaiak lurrinei egozten zien egoera hura, naiz eta bularra ematen ari diren emakumeek ez izan halakorik. Oso denbora gutxian, emakumearen osasuna ahuldu egin

zen, eta landatik alde egin eta hirira itzuli behar izan zuten. Bidaia zalgurdi banatan egitea lortu zuen senarrarengandik. Hona iritsitakoan, hainbeste erreserba eta trebezia jarri zuen bere jokaeran, non Desrochesek, gutunak falta zitzaizkiola ohartu gabe, ez baitzuen ikusi emaztearen destaina arinetan, haren hoztasunean, hasperenetan, malko eutsietan, bakarrik egoteko gogoan, berak uste zuen ondoezaren ohiko sintomak baino. Batzuetan haurrari bularra gehiago ez ematea aholkatzen zion; horixe zen, ordea, komeni zitzaion artean, beraren eta senarraren artean, gauzak argitzea saihesteko bide bakarra. Desroches, beraz, emaztearen ondoan bizi zen, erabat ezjakinean haren jokabidearen misterioaz. Goiz batez hura handi, noble, duin agertu zitzaionean, ezkontza-bezperan etxeko zeremonian aldean zituen jantzi eta apaingarri berberekin. Freskotasunean eta osasun-itxuran galdua zuena, barrutik jaten zuen pena sekretuak kendutako xarma, bere itxuraren taxu ederak ordezkatzeko zuen. Desroches beste emakume lagunari idazten ari zen emaztea gelan sartu zitzaionean. Biak asaldatu ziren, baina, biak bai-

tziren abilak, eta disimulatzeko interesatuta zeudenez, asaldura hura pasatu zen. «Oi, andere!» bota zuen Desrochesek hura ikustean, eta idatzia zuen papera oharkabean bezala zimurtuz, «zein eder zauden! Zer asmo duzu gaurko? — Nire asmoa, jauna, bi familiak biltzea da. Lagunak eta senideak daude gonbidatuta, eta espero dut zu ere etorriko zarela. — Bai noski. Zer ordutan nahi nauzu? — Zer ordutan nahi zaitudan? Bada... betiko orduan. — Haizemailea eta eskularruak dituzu, irtetekotan al zara? — Ondo baderitzozu. — Eta jakin al liteke nora zoazen? — Amarenera. — Arren, nire begirunea erakutsiozu. — Zure begirunea! — Bai, noski».

“Desroches anderea mahaira esertzeko orduan itzuli zen. Gonbidatuak iritsiak ziren, beraren zain zeuden. Hura agertu bezain laster, senarrak egindako hasperen bera; gizonak eta andreak inguratu egin zuten, denek batera esaka: «Begira, baina, zein ederra den!» Emakumeek ukitutxoak egiten zizkioten orrazkeran; gizonezkoek, tarte batera jarrita eta geldi-geldi mirespenez, egiten zuten beren artean: «Ez, ez Jainkoak ez naturak ez dute ezer egin, ezin izan

dute ezer egin ikusgarriagorik, handiagorik, ederragorik, nobleagorik, beteginagorik. —Baina, andere nirea —esaten zion Desrochesek—, irudi luke ohartu ere ez zarela egiten nolako zirrara egin diguzun. Arren, ez irribarrerik egin, irribarre batek, hainbeste xarmari gaineratuta, zentzuna galaraziko liguke eta». Desroches andereak sumin-keinu arin batez erantzun zuen, burua beste aldera itzuli eta begietara eraman zuen musuzapia, hezetzen hasiak baitzitzaizkion. Emakumeek, gauza guztiez ohartzan baitira, galdezka ari ziren ahapeka: «Zer ote du baina? Badirudi negarguraz dagoela». Desrochesek, bai baitzekien zer ari ziren, kopetara eraman eskua eta keinu egiten zien, anderea pittin bat burutik egiten hasia zegoela, alegia.

— Hain zuzen, urrun nintzelarik, idatzi zidaten zurrumurrua zabaldu zela, Desroches andere ederra, aurrez La Carlière, erotu egin zela.

— Bazkaria zerbitzatu zuten. Aurpegi guztietan ikusten zen alaitasuna, salbu eta La Carlièreko anderearenean. Desrochesek trufa pixka bat egin zion aire duin hura zela eta. Ez zion kasurik egiten ez bere ez lagunen arrazoari, haren irri-

barre baten arriskuaren beldur izateko: «Andere nirea, irribarretxo bat...». La Carlièreko andereak ez entzuna egin eta bere aire serioarekin jarraitu zuen. Emakumeek esan zuten aurpegiera guztiak zihoazkiola ondo, eta edozein aukera zezakeela. Amaitu da bazkaria; sartu dira saloira. Eratu da korroa. La Carlièreko anderea...

— Desroches anderea esan nahi duzu?

— Ez, jadanik ez diot horrela deitu nahi. La Carlièreko andereak txintxarria jo du; seinale bat egiten du; ekarri diote haurra. Hartu du ikaraz, erakutsi du bularra, ematen dio titia eta zaintzailerari itzultzen dio haurra, tristeki begiratu eta haurraren aurpegira erori zen malko batez busti ondoren. Malko hura xukatuz, honela esan zuen: «Ez da azkena izango». Baina ia ez zizkioten aditu hitz haiek, hain ahapeka esan zituen. Ikus-kizun hark han ziren guztiak beratu zituen, eta erabateko isiltasuna ekarri zuen saloira. Orduan, La Carlièreko anderea jaiki eta, han ziren guztiei zuzenduz, segidako hau —edo antzeko zerbait— esan zuen: “Senideok, lagunok, hemen zineten denok nire fedea Desroches jaunagan eta berak berea nigan jarri genuen egunean. Zein baldin-

tzatan hartu nuen haren eskua eta eman nion nirea, gogoan duzue zalantzarik gabe. Desroches jauna, hitz egizu. Leial izan al naiz agintutakoarekin? —Azken muturreraino. —Eta zuk, jauna, zuk iruzur egin didazu, traditu egin nauzu. —Nik, andere! —Zuk, jauna. —Zein zorigaiztokok, zein doilorrek... —Hemen ez da ni beste zorigaiztokorik, eta zu beste doilorrik. —Andere... emazte nirea... Jadanik ez naiz zurea... —Andere... Jauna, ez gezurrik eta harrokeriarik gehitu maltzurkeriari. Zenbat eta gehiago defendatu, orduan eta lotsa handiagoa izango duzu. Ez hartu lan hori.

«Hitzok esanda, gutunak atera zituen sakelatik, Desrochesi aurkeztu zizkion batzuk, eta besteak han zirenen artean banatu zituen. Hartu zituzten, baina ez zituzten irakurri. “Jaunandreak, zioen La Carlièrereko andereak, irakurri eta zeuek juzkatu. Ez zarete hemendik irtengo zuen epaia eman gabe”. Gero, Desrochesi zuzenduz: “Zuk, jauna, ezagutuko duzu, noski, idazkera”. Artean ere ezbaian ziren, baina La Carlièrereko andereak behin eta berriz hala eskatuta, irakurri zituzten gutunak. Hala ere, Desro-

chesek, ikaraz, mugitu gabe, kristal baten kontra jarria zuen burua, han zeudenei bizkarra emanik, ez baitzen gai haiei begiratzeko. Lagun bat hartaz errukitu zen, eskutik hartu eta saloitik atera zuen.

— Eszena horren xehetasunak eman zizkidatenean, esan zidaten berak narras samar jokatu zuela, eta emazteak zintzo baina barregarri.

— Desrocheseke alde egin izanak lasaitu egin zituen denak: denak zeuden ados, errudun zen; onartu egin zuten La Carlièreko anderearen haserrea, baldin eta urrunegi eramaten ez bazuen; beraren inguruan bildu ziren, estutu zuten, erregutu zioten, arrenka eskatu; Desroches atera zuen laguna sartu-irtenka zebilen, gertatzen zenaren berri ematen ziolarik. La Carlièreko andereak tinko iraun zuen artean azaldua ez zuen erabakian. Hitz berberetz erantzuten zien esaten zitzaizkion guztiei: “Andereak, ez dut kritikatzeko zuen barka-nahia”; gizonei: “Jaunak, hau ezin da; konfiantza galdua da, eta ez dago konponbiderik”. Senarra ekarri zioten; hura hilda zegoen bizirik baino areago; emaztearen oinetarra jauzi ez, erori egin zen, han geratu zen hitzik

egin gabe. La Carlièreko andereak esan zion: “Jauna, jaiki zaitez”. Hura jaiki eta emazteak erantsi zuen: “Senar gaiztoa zara; gizon jokatzeko dakizun ala ez, oraintxe ikusiko dut. Ezin zaitut maite ez estimatu; alegia, ez gara elkarrekin bizitzeko eginak. Nire fortuna uzten dizut, ez dut eskatzen doi semea eta biok bizitzeko adina baik. Ama jakinean dago, prestatua dit lekua berean, eta utziko didazu oraintxe bertan hara joaten. Eskatzen dizudan grazia bakarra, eskubi-dea baitut, eskandalurik ez egitea da, horrek ez bailuke nire asmorik aldatuko, eta ondorio bakarra zeuk nire kontra esandako epai ankerra bizkortzea besterik ez bailuke izango. Utzi haurra nirekin eraman dezadan eta amaren ondoan gera nadin, honek nire begiak edo nik beronenak itxi arte. Pena baduzu, zaude ziur nire oinazeak eta amaren adin handiak laster jarriko diotela amaia pena horri”.

“Bien bitartean, negar batean zeuden denak; emakumeek eskuetatik heltzen zioten, gizonetakoak makurtuta zeuden. Baina La Carlièreko andereak, haurra besoetan zuela, aterantz egin zuenean, orduantxe aditu ziren zotinak eta

garrasiak. Senarrak garrasi: “Emazte nirea! Emazte nirea! Entzun, arren; zuk ez dakizu”. Gizonek garrasi, emakumeek garrasi: “Desroches anderea! Andere!”. Senarrak garrasi: “Lagunak, joaten utziko al diozue? Geldiaraz ezazue, geldiaraz ezazue, arren! Entzun diezadala, hitz egin nahi diot”. Besteek bera bultzatzen zutenez, hitzok esan zituen: “Ez, ez nuke jakingo, ez nintzateke ausartuko; nik hari eskua erantsi! Nik hura ukitu! Ez naiz nor”.

«La Carlièreko andereak alde egin zuen. Ni haren amarenean nintzen heldu zenean, erabat jota egindako esfortzuagatik. Hiru zerbitzarik jaitzia zuten zalgurditik, eta burutik eta hanketatik helduta zeramaten; atzetik haurtzaina zetorren, heriotza bezain zurbil, haurra besotan lo. Ohean jarri zuten emakume zorigaitzekoa, eta han geratu zen denbora luzean; ama zahar errespetagarria, bien bitartean, begira zegokion, ahoa zabaltzen zuen, baina oihurik ez, haren inguruan zebilen arrapataka, alaba sorotsi nahi eta ezinean. Halako batean, etorri zen hura bere onera, eta lehen hitzak, betazalak altxatuz, hauek izan ziren: “Ez al nago hilda? Hain gauza gozoa da

hilda egotea. Ama, jar zaitez hemen, nire ondolan, eta hil gaitezen biok. Baina, hiltzen bagara, nor arduratuko da haur gajo honetaz?”. Orduan amaren bi esku lehor ikaratiak bere esku batean hartu, jarri beste eskua haurraren gainean, eta malko-jario hasi zen, zotinka, kexatu nahian, baina zotin indartsu batek eteten zizkion kexu eta negarrak. Hitz batzuk egin ahal izan zitue-nean, esan zuen: “Ba ote liteke hark nik adina sufritzea!”.

«Bien bitartean, Desroches kontsolatzen ari ziren, eta konbentzitzen halako hutsegite arinagatiko erresuminak ezin zuela iraun, baina denbora pixka bat eman behar zitzaiola emakume burgoi, sentibera eta minduari, eta zeremoniaren ohiz kanpoko solemniteteak ohorea jartzen ziola jokoan, bortizki alde egitera behartuz. “Gure errua ere bada, zioten gizonek. —Bai horixe, zioten emakumeek; ikusi izan bagenu astolaster izugarri hau jendearen eta kondesaren begiz, orain tristatzen gaituen ezer ez zen gertatuko. —Izan ere, arranditsu egiten diren gauzek kikildu egiten gaituzte, eta mirespen tentel batek har gaitzan uzten dugu, sorbaldak jaso eta

barre egin beste beharrik ez genukeenean. — Ikusiko duzu, ikusiko duzu azken eszena honek sortuko duen eskandalua, eta nola astinduko gaituzten denek”.

— Gure artean: kontua hartarakoxea baitzen.

— Egun hartatik aurrera, La Carlièreko andereak ezkongaitako izena hartu zuen berriro, eta ez zion inori utzi Desroches anderea dei ziezaion. Bere atea, denbora luzean mundu guztiari itxia, betiko itxi zion senarrari. Honek idatzi, eta hark gutunak erre ireki ere egin gabe. La Carlièreko andereak adierazi zien senide eta lagunei haren alde egin zezan lehena ez zuela berriz ikusiko. Apaizak ere sartu ziren, alferrik; handikiei dago-kienez, errefusatu egin zuen haien bitartekotza, hain burgoi eta irmo non laster utzi baitzuten bakean.

— Zalantzarik gabe, haiek mutiria eta egun-doko itxurontzia zela esan zuten.

— Eta beste denek berehala errepikatu zuten hori. Bien bitartean, emakumea malenkonian murgildu zen; osasuna pentsaezinezko bizkortasunez hondatu zitzaion. Hainbeste lagunek zekiten ustekabeko banaketaren eta hartarako arra-

zoi bitxiaren berri, non laster denen solasgaia izan baitzen. Orain hauxe eskatuko dizut, ahal baduzu begiak La Carlièreko andereagandik kendu eta jendeagan jartzea; juzkatzen gaituen, gure ohorea erabiltzen duen, zeruraino jaso edo lokatzatan herrestatzen gaituen jendaila ergel horretan, zein hainbat gehiago errespetatzen den zenbat eta indar eta bertute gutxiago ukan. Jeddearen esklabo, tiranoaren semeorde izan ahalko zarete; baina ez duzue sekula ikusiko lduen laugarren eguna. Iritzi bat besterik ez zegoen La Carlièreko anderearen jokabideaz: “Giltzapean jarri beharreko zoroa zen. —Emateko eta segitzeko etsenplu ona! —Hori senarren hiru laurdenak beren emazteetatik bereiztea da. —Hiru laurdenak, diozu? Ehunetik bi ba al dira bada erabat fidel? —La Carlièreko anderea oso atsegina da, ezin ezetz esan; alde zaurretik jarriak zituen bere baldintzak, ados; oso ederra, bertutetsua, zintzoa da; erantsi horri zaldunak dena zor diola; baina horrez gainera senarra berari atxiki dakion bakarra izatea erresuma osoan, pretentsio hori gehiegizkoa da, barregarria”. Eta honela jarraitzen zuten: “Desroches

hain maiteminduta badago, zer dela eta ez du jotzen legeetara, eta zentzarazten anderea?”. Pentsa ezazu zer esango zuketen, baldin eta Desrochesekek edo lagunak azalpenak eman ahal izan balituzte; baina gauza guztiek zeramatza-ten isiltasunera. Azken kalaka horiek alferrik esan zizkioten behin eta berriz zaldunari; Edozer egingo zukeen emaztea bereganatzeko, bortizkeria izan ezik. Bestalde, La Carlièrereko anderea emakume beneratua zen; eta maiseatzen zuten ahots haien guztien artetik, baziren batzuk bera- ren alde hitz bat edo beste egiten zutenak, baina oso hitz herabetiak nolana ere, oso ahulak, oso gordeak; konbentzituak baino gehiago, kortesi-azkoak.

— Egoerarik nahasienetan, kortesiaren alder- dia etengabe hazten da iheslariekin.

— Halaxe da, bai.

— Irauten duen zorigaitzak gizon guztiekin adiskidetzen gaitu, eta emakume eder batek xarmak galtzeak, beste emakume guztiekin adiskidetzen du.

— Are hobeto. Hain zuzen, La Carlièrereko anderea hezur hutsetan zegoenean, errukizko

mintzagaia nahasi zen gaitzespenekin: “Adinaren brean itzaltzea, horrela zimeltzea, zer eta alde zurratik jakinaren gainean jarrita zeukan gizon baten kausaz; ezagutu behar zuen, eta emakumeak beragatik egin zuen guztia ordaintzeko bide bakar bat besterik ez zuen gizonaren traizioaren kausaz: zeren eta, hau gure artean, Desroches berarekin ezkondu zenean, longaina eta ezpata besterik ez zuen Britainiako kadete bat zen. —La Carlièrereko andere gajoa! Dena den, oso triste da guztia. —Baina zergatik ez bueltatu senarrarengana? —A! Zergatik? Nork bere izaera du, eta hobe halakorik gehiagotan ikusiko balitz; gure jaun eta jabeek bi aldiz pentsatu beharko lukete”.

«Horrela dibertitzen ziren bitartean, alde eta kontra, josi edo bordatu bitartean, eta balantza ezari-ezarian La Carlièrereko anderearen aldera makurtzen zelarik, Derroches oso egoera eska-sean eroria zen izpirituz eta gorputzez, baina ez zen ageri; landara erretiraturik zen, eta han, oinazez eta saminez, menpekotasunaren bide guztietatik alferrik eskatua zuen errukiaren zain zegoen. Bestetik, pobretasunaren eta ahulezia-

ren azken graduraino iritsirik, La Carlièreko andereak ugazama baten esku utzi behar izan zuen haurraren mantenua. Esne-aldaketak ondo-rio txarrak ekarriko ziola beldur zen, eta halaxe gertatu ere; haurra ahulduz joan zen egunetik egunera, eta hil egin zen. Orduan honelakoak esan ziren: “Ba al dakizu? La Carlièreko andere gajo horri haurra hil zaio. —Kontsolaezin egon behar du. —Kontsolaezin, diozu? Horrek duen pena ez dago esaterik. Ikusi dut, eta zein errukarria! Ezin du gehiago. —Eta Derroches? —Aipatu ere ez niri gero gizonak; tigreak dira horiek. Emakume hori pittin bat maiteko balu, landan egongo al zen bada bera? Ez al zen laster etorriko? Ez al zitzaiokeen kolean, elizan, atean bertan inguratuko? Benetan saiatuz gero, lortu egiten da ate bat irekitzea; han itxaron beharra dago, han lo egin, han hil”. Desrochesek, ordea, eginak zituen horiek denak, baina inork jakin ez; izan ere, kontua ez da jakitea, hitz egitea baino. Beraz, hitz egiten zen. “Haurra hil da. Nork daki ez ote zen aita bezalako munstroa izango? —Ama hiltzera doa. —Eta senarra, zer ari da bien bitartean? —Ederra galdera! Egunez, basoan ibil-

tzen da zakurren atzetik, eta gauez bera bezalako gizagalduekin ibiltzen da. —Ederki!”.

«Beste gertaera bat: Desrochesekek bere maiari zegozkion ohoreak lortuak zituen. Ezkondu zenean, La Carlièrereko andereak armada uztea exijitu zion, eta erregimentua anaia kadeteari uztea.

— Desrochesekek anaia kadetea al zuen bada?

— Ez, baina La Carlièrereko andereak bai.

— Eta?

— Eta, gizon gazte hura lehen batailan hil zuten, eta hara non hasten diren alde guztietatik oihuka: “Zorigaitza sartu da etxe horretan Desrocheseekin”. Haiei kasu egitera, pentsa zitekeen ofizial gaztea hil zuen kolpea Desrochesen eskutik etorri zela. Eromena eta desarrazoia orokor bezain pentsaezinak ziren. La Carlièrereko anderearen penak gertatu ahala, Desrochesen izaera belztuz zihoan, traizioa areago gaitzesten zen, eta erru gehiago edo gutxiago izan gabe, gero eta gorrotagarriago bihurtzen zen egunetik egunera. Uste al duzu hori dela dena? Ez, ez. La Carlièrereko anderearen amak beteak zituen hirurogeita sel urteak. Pentsatzen dut bilobaren herio-

tza eta alaba oinazetan etengabe ikusi izana nahikoa zirela hari egunak laburtzeko; zahartuta zegoen, gaixorik zegoen. Ez dio axola: ahaztu ziren haren zahardadea eta gaixotasunak, eta haren heriotzaren ardura ere Desrochesi gainerratu zioten. Laster hasi ziren maiseatzen; eta donge bat izan zen, zeini La Carlièreko anderea ezin baitzitzaion hurbil pudore oro hondatu gabe; amaren, nebaren, semearen hiltzailea!

— Baina logika eder horren arabera, baldin eta La Carlièreko anderea hil balitz ere, batez ere gaixotasun luze eta mingarri baten ondotik, injustizia eta gorroto publikoari aurrerapen handiak egiten utzita, jendeak familia osoaren hiltzaile gorrotagarritzat hartuko zukeen.

— Horixe gertatu zen, eta horixe egin zuten.

— Tira!

— Sinesten ez badidazu, galdetu hemen direnetako edonori, eta ikusiko duzu zer azaltzen dizuten. Saloian bakarrik geratu da, sartu denean denek bizkarra eman diotelako.

— Zergatik, baina? Gizon bat gaiztoa dela jakinda ere, hori ez da arrazoia hari ez hitz egiteko.

— Afera berri samarra da, eta hemengo jende guztia hildakoaren senide edo lagunak dira. La Carlièreko anderea joan den Mendekoste ondoko bigarren jaiari hil zen, eta badakizu non? Saint-Eustachen, meza nagusian, jende ugariaren artean.

— Baina, hori da erokeria! Hil, ohean hil behar da. Nori bururatzen zaio elizari hiltzea? Emakume horrek erabakita zeukan azken-azkenerraino bitxia izatea.

— Bai, bitxia, horixe da hitza. Hobexeago zegoen; bezperan konfesatua zen; indarrez sentitzen zen sakramentua hartzera elizara joateko, etxean hartu ordez. Eraman zuten aulki batean. Entzun du meza, kexurik gabe eta ustez sufri-mendurik gabe. Etorri da jaunartzeko unea; nes-kameek besoa emanda eramanez dute jaunartze-ra; eman dio apaizak komunioa, makurtu da bere baitara biltzeko bezala, eta azken hatsa eman.

— Azken hatsa!

— Bai, modu bitxiz hil zen, zeuk esan bezala.

— Jainkoak daki zer harrabots sortuko zen!

— Utz dezagun hori, ondo jakina baita, eta segi dezagun.

— Alegia, emakumea ehun aldiz miresgarriago eta senarra ehun aldiz nardagarriago bihurtu zirela.

— Ez dago esan beharrik.

— Eta hori ez al da dena?

— Ez. Zoriak nahi izan zuen Desroches handik pasatzea La Carlièrereko anderea elizatik etxera hilda zeramatenean.

— Irudi luke dena gizajo haren kontra zegoe-la.

— Hurbildu da, ezagutu du emaztea, hasi da oihuka. Jendea galdezka, ea nor den gizon hori. Jendearen erditik, ahots indiskretu batek (parrokiako apaiz batenak) dio: “Emakume horren hiltzailea!”. Desrochesek, besoak bihurrituz, biloei tiraka, eransten du: “Bai, bai, neu naiz”. Berehala, beraren inguruan biltzen dira denak, irainez betetzen dute, harriak biltzen dituzte, eta han bertan harrikatuko zuten, baldin eta pertsona on batzuek salbatu ez balute jendetza haserretuaren suminetik.

— Eta zer jokabide izan zuen emaztea gaixorik zegoen bitartean?

— Izan zitekeenik onena. La Carlièreko andereak engainatu egin zuen, gu denok bezala, ezkutatu egiten baitzien besteei —bere buruari ere bai agian— bere azken hurbila...

— Ulertzen dut, eta hala ere barbaro, giza-txar deitu zioten.

— Piztia gaiztoa, emakume jainkozko bati, emazte eta ongile izan zuenari, pixkanaka sasta-kaia bularrean sartu omen ziona, hiltzen utzi zuelarik kasurik egin gabe, interes eta sentibera-tasun mendreenik ere erakutsi gabe.

— Eta hori guztia zergatik, eta ezkututzen zioten gauza jakin ez zuelako.

— Emakumearen inguruan bizi zirenek ere ez jakin arren.

— Nahiz eta egunero ikusten zuten.

— Hain zuzen, eta horra zer den gure ekintza partikularren epai publikoa. Horra nola hoben arin bat...

— Ene! hain arina eze...

— ...larriagotuz doan haien begietara, aurrei-kustea edo galaraztea guztiz ezinezko zen gertaera-segida baten kariaz.

— Lehen arrazoiarekin batere zerikusirik ez zuten zirkunstantziengatik ere bai, hala nola La Carlièreko anderearen anaiaren heriotza, Desrochesen errejimendua hartu ondoren.

— Izan ere, onerako nahiz gaitzerako, aldez panegirista barregarriak dira, aldez zentsore zentzugabeak; gertaera da beti haien goresp-naren edo zentsuraren neurria. Lagun, entzun horiei, aspertzen ez bazaituzte, baina ez sinetsi fitsik ere, eta ez imitatu inoiz, beroriek bezain ergel izan nahi ez baduzu. Zer ari zara pentsa-tzen? Ametsetan ari zara.

— Tesia aldatuko dut: demagun La Carlièreko andereak jokabide normalagoa izan zuela. Aurki-tu ditu gutunak; haserretu da. Egun batzuen ondoren, umore txarrak azalpen bat dakar, eta oheak adiskidetzea, ohi bezala. Aitzakiak eta guzti, protesta eta zin-egite berritu eta guzti, Desrochesen izaera arinak bigarren hanka-sar-tzea eragingo dio; beste haserrealdi bat, beste azalpen batzuk, beste adiskidetze bat, beste zin-

egite, beste zinauste bat, eta horrela hogeita hamar bat urtean, ohi den bezala. Bien bitartean, Desroches gizon ongi ikasia da, ahalegin handiz, mugarik gabeko gogoz, irain ezdeus bat konpontzen duena.

— Ohi ez bezala.

— Banaketarik ez, eskandalurik ez; elkarrekin biziko ziren, gu bizi garen bezala; eta hilko ziren amaginarreba, eta ama, eta neba eta haurra, baina inork ez zukeen hitz erdi aterako.

— Edo zorigaitzeko batez errukitzeko baino ez zuten hitz egingo, zori txarrak eta desgraziek jotako gizajo batez.

— Egia da.

— Hortik ondorio hau ateratzen dut: ez zaudela urrun ehun mila buru eta beste hainbat mihi gaiztoko piztia doilor horri merezi duen mesprezio guztia erakusteko. Baina goiz edo berandu zentzuna itzultzen zaio, etorkizuneko diskurtsoak zuzendu egiten du orainaldiko kalaka.

— Beraz, zure ustez, noizbait auzia den bezala ikusiko dute, alegia La Carlièreko anderea salatu eta Desrochesi barkatuko diote?

— Ez dut uste une hori oso urrun denik. Lehenik, ez daudenak inoiz ez dutelako arrazoirik, eta ez da hildako bat baino ez dagoenagorik. Bigarrenik, hitz egiten delako, eztabaidatu egiten delako, istorio erabilienak behin eta berriz agertzen dira elkarrizketetan, eta partzialtasun gutxiagoz pentsatzen dira. Beharbada beste hamar bat urtez ikusiko dugu Desroches gizajo hori zuk ikusi bezala, bere bizitza zorigaitzekoa etxez etxe garraiatuz: jendea berriro hurbilduko zaio, galdetu egingo dio, entzun, eta hark ez du arrazoirik izango isilik egoteko, eta haren historiaren funtsa, lehen tentelkeria, deuseztatu egingo da.

— Horixe balio baitu.

— Uste dut gu biok nahikoa gazte garela La Carlièrereko andere handi, bertutetsu, duina zurruntzat eta itxurati burgoitzat hartuko dutela ikusteko; izan ere, batzuek besteak bultzatzen dituzte, eta beren juzkuetan araurik ez dutenez, ez dute neurririk beren adierazpenetan.

— Baina zuk alaba bat bazenu ezkongai, emangoal zenioke Desrochesi?

— Batere zalantzarik gabe, zeren eta zoriak emanarazi baitzion urrats labain horietako bat; ez zuk, ez nik, ez inork dauka esaterik hortik libre dagoela; zeren eta adiskidetasunak, zintzotasunak, ongi-egiteak, zirkunstantzia posible guztiek prestatua baitzuten hutsegitea eta aitza-kia; zeren eta emazteagandik apartatu zenetik izan duen jokabidea akasgabea izan baita, eta, senar infidelak onesten ez baditut ere, ez ditut gehiegi preziatzen tasun eskas horri hainbesteko garrantzia ematen dioten emakumeak. Eta gainera neure ideiak ditut, justuak agian, bitxiak ziur asko, zenbait ekintzaz, nik gizonaren bizio baino gehiago gure legeria burugabeen ondorio —ohitura burugabeen iturri— ikusten ditudanak, eta erabat artifizial deituko nukeen galdukeria. Hori ez dago oso argi, baina argituko da behar-bada noizbait. Eta itzul gaitezen etxera; hemen-dik aditzen ditut gure bizpahiru atso kalakariren garrasiak, zuri deika, eta gainera eguna badoa eta gaua badator agindu dizudan izar-segizio ugariarekin.

— Egia da».